

# IKASTETXE ERALDATZAILEAK

ezaugarriak eta aurrera egiteko proposamenak



HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN  
ETA HIRITARTASUN GLOBALAREN  
ALDEKO MUGIMENDUA

Dokumentu hau, Hezkuntza Eraldatzaileako eta Herritartasun Globalerako Mugimendua sustatzen duten honako erakundeetako irakasleek 2015 eta 2018 urteen artean egindako baterako lanaren emaitza da: Red Transforma (InteRed), Red de Educadores y Educadoras por una Ciudadanía Global (Oxfam Intermón), Red Edukalboan (ALBOAN) eta Red Solidaria de Docentes (Entreculturas).

Ikastetxetako Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzaileen Esperientzien sistematizazio prozesuari buruzko Azken Txostena baterako lan honen zati bat da; txosten honen egileak dira Altekio, irabazi asmorik gabeko baterako lanerako kooperatiba, Iniciativas para la Sostenibilidad-eko Eva M<sup>a</sup> Morales eta Vanesa Sánchez Maldonado.

**Lehenengo dokumentuaren lanketa:** Universidad Politécnica de Valencia-ko Instituto de Gestión de la Innovación y del Conocimiento.

Alejandra Boni eta Begoña Arias.

**Koordinaketa orokorra:** María Elena Oliveros Palomo (InteRed).

**Autoretza, HGHE Mugimenduaren Koordinaketa Taldea:**

Oxfam Intermón, Elisabet Santpere Baró.

InteRed, Guillermo Aguado de la Obra.

Entreculturas, Yénifer López Ramos.

ALBOAN, Ani Urretavizcaya Loinaz.

**Diseinu Grafiko Soziala:** Pica Para Arriba.

---

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) finantzaturako hitzarmen baten parte da argitalpen hau: "Movimiento por la Educación Transformadora Global y la Ciudadanía Global en el ámbito de la educación formal" (Kodea: 14-CO1-642).

Argitalpen honen edukia, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen aldeko Mugimenduaren parte diren erakundeen erantzukizun soila da, eta ez du, beharrez, AECIDen iritzia islatzen.

Centros Educativos Transformadores. Rasgos y propuestas para avanzar. Fundación Interead

Depósito legal: M-35988-2018

ISBN: 978-84-946423-8-8

Azaroa 2018

Finantzaketa:



# AURKIBIDEA

## AURKEZPENA: ALDAKETARAKO HEZKUNTZA PROPOSAMENA. 05

---

### 1 ATALA: SARRERA 07

---

#### 1.1. Mundua aldatzen ari da, eta hezkuntza ere bai 07

---

#### 1.2. Eta orain... zer? Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea da erantzuna 11

---

### 2 ATALA: IKASTETXE ERALDATZAILEAK. EZAUGARRI BEREIZGARRIAK 13

---

#### 2.1. Ikastetxearen Kulturari buruzko ezaugarriak 16

1 Ezaugarria: Justizia Globalerantz eta Giza Eskubideetarantz bideratuta dago 18

2 Ezaugarria: Genero berdintasuna eta Hezkidetza 20

3 Ezaugarria: Kulturartekotasuna eta Barneratzea 22

4 Ezaugarria: Parte hartzea 24

5 Ezaugarria: Garapen jasangarria 26

---

#### 2.2. Oinarri pedagogikoei eta metodologia eraldatzaileei buruzko ezaugarriak 28

6 Ezaugarria: Ikaskuntza sozioemozionala 30

7 Ezaugarria: Esperientziazko ikaskuntza esanguratsua 32

8 Ezaugarria: Metodologia kritiko, erreflexibo eta kolaboratiboak 34

9 Ezaugarria: Eragin eta ekintza eraldatzaileerako jarduerak 36

10 Ezaugarria: Ikaskuntza eta hobekuntza dakarren ebaluazioa 38

---

#### 2.3. Ikastetxearen plangintza eta antolaketari buruzko ezaugarriak 40

11 Ezaugarria: Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen Curriculuma 42

12 Ezaugarria: Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen agerpena dokumentu estrategikoetan 44

13 Ezaugarria: Antolakuntza parte hartzailea eta integratzailea 46

14 Ezaugarria: Erne botere- eta ardura-harremanei 48

15 Ezaugarria: Inguruarekin lana, sarean 50

---



## **3 ATALA: IKASTETXE ERALDATZAILEAREN BIDEAN AURRERA EGITEKO PAUSOAK** **52**

---

<b>3.1. Amets egiten hasiko gara. Liluratzen eta motibatzen du</b>	<b>54</b>
<b>3.2. Zein unetan gaude orain? Diagnostikoa</b>	<b>55</b>
<b>3.3. Nora heldu nahi dugu? Ekintza-Plana Diseinatu</b>	<b>58</b>
<b>3.4. Aurrera! Burutzea eta jarraipena</b>	<b>62</b>
<b>3.5. Nora heldu gara? Zer lortu dugu? Kontrastea eta Ebaluazioa</b>	<b>63</b>
<b>3.6. Eta ospatzen dugu! Ibiliko bidea jakinarazten dugu, liluratzen jarraitzeko</b>	<b>64</b>

---

## **ERANTSIAK: ERREMINTA-KUTXA** **65**

<b>1. "Amets kolektiboaren eraikuntza" horma-irudia</b>	<b>65</b>
<b>2. Ikastetxe eraldatzaileen berrikuspenerako galdera erreflexiboak</b>	<b>66</b>
<b>3. Ekintza-Planaren Fitxa</b>	<b>71</b>
<b>4. Bidaiaren egunkaria (jarraipena)</b>	<b>72</b>
<b>5. Bizi izandako esperientzia sistematizatzeko elementuak</b>	<b>73</b>
<b>6. Ebaluazioa</b>	<b>76</b>

---

## **EPILOGOA: HEZKUNTZA BERRIZTATZAILERAKO PROPOSAMENA, PRAKTIKAN OINARRITUTA** **79**

## **GEHIAGO IKASTEKO BESTELAKO BALIABIDEAK** **81**

---



# AURKEZPENA: ALDAKETARAKO HEZKUNTZA PROPOSAMENA

**Giza eskubideak eta duintasuna sustatzeko, txirotasuna erazteko eta jasangarritasuna lortzeko indar eraldatzailerik ahaltsuena hezkuntza da. Eskubideen berdintasunean eta justizia sozialean, aniztasun kulturalaren errespetuan, nazioarteko solidaritatean eta ardura partekatuan oinarritzen den etorkizun hobea eraikitzeko indarra da; horiek dira, hain zuzen, gizaki guztien xede komuna.**

**UNESCO «Hezkuntza birplanteatu, mundu mailako ondare komunerantz?»»**

Mundua gero eta bizkorrago aldatzen ari da, eta ondorioz, hezkuntzak ere garatu behar du, gizartean ditugun erronkei oro har erantzun eman nahi badiegu.

Gaur egungo sistema ero amorratuan jazotzen da bizitza. Bizitza-eredu ekonomiko eta ekologikoa sostengaezina delarik, munduko herritarroi, gizarte globala garela, erantzutera eta hautabideak bilatzera bultzatzen gaitu, pertsona guztientzat eta munduarentzat bizitza duina eta jasangarria bermatze aldera.

Bizitza ereduen, hiritartasun ereduen inguruan gogoeta egiteko, derrigorrez hezkuntzaren inguruan gogoeta egin behar dugu, berealdiko ikuspuntuaz, eta honela ikusmolde zehatz bat planteatu. Horretarako, gure ustez garrantzitsua da giza eta hezkuntza sektoreko eremu, antolakunde eta erakunde ezberdinetatik pertsonak zentzu honetan hausnarketa egitea eta eztabaidatzea, hautabideak eraikitzeko helburu komuna erdiesteko. Hau da, hain zuzen, argitalpen honen helburuetariko bat: hezkuntza eredu berrien inguruan hausnarketa eta eztabaida plaza-ratzeko proposamen bat ekartzea, herritartasun eredu berriak sortzeko, ikastetxetatik erronka honi aurre egin behar dioten pertsonari zuzenduta.



Eskuartean duzuna, Red Transforma (InteRed), Red de Educadores y Educadoras por una Ciudadanía Global (Oxfam Intermón), Red Edukalboan (ALBOAN) eta Red Solidaria de Docentes (Entreculturas) delakoetako irakasleek burututako baterako lanaren emaitza da. Sare eta erakunde horiek, elkarrekin, **Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailerako Mugimendua** sustatzen dute, hots, Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren alde egiten duen mugimendua, gizartearen kasuan bezala, hezkuntza eraikuntza eta aldaketarako elementu iraunkorra baita.

Proposamen honen bitartez, etorkizuneko hezkuntzarako nazioarteko komunitateak planteatzen duen irakaskuntza-ikaskuntza eredu berriei buruzko eztabaidei balio erantsia eman nahi diegu. Etorkizunean, xede humanista eta jasangarriagoa lortzeko baliabide eta metodologiak ekartzen dituen hezkuntza nahi dugu, egungo eskola-sisteman ezarri eta hedatu ahal diren proposamen berriak eskaintzeko, horrek dituen mugapen eta aukera guztiekin.

Pozik egongo gara dokumentu hau orientazio- eta inspirazio-gidatzat jotzen bada, ikastetxetan nahiz ikasgelatan hezkuntzaren eredu hau ezartzeko aurrera egin nahi duten irakasle eta zuzendarien artean. Horretarako, dokumentu honetan Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailerako proposamena eusten duten oinarri teoriak aurkituko dituzue; halaber, ikastetxe eraldatzailea definitzen duten «ezaugarri» edo elementuen zerrenda aurkituko duzue, ikastetxetako bizitzan eragiten duten hiru bloke edo eremuetan egituratuta: ikastetxearen kultura (xedeari, ikuspegiari eta baloreei dagokienez), oinarri pedagogikoak eta metodologia eraldatzaileak (bertan garatzen diren hezkuntza-praktikei dagokienez) eta ikastetxeko politikak (ikastetxeko plangintzari eta antolakuntzari dagokienez). Azkenik, ezarpen praktikorako proposamen bat aurkituko duzue, zeuen ibilbidea eraikitzen laguntzeko, etengabe hezkuntza eredu horretarantz jotzeko: Herritartasun Globalerako Ikastetxe Eraldatzailea.

## Bidaia on izan!



# 1 ATALA: SARRERA

1 1

## MUNDUA ALDATZEN ARI DA, ETA HEZKUNTZA ERE BAI

### ZER MUNDURAKO HEZI?

Egungo gizartea inoiz baino konektatuago dago, eremu guztietan hauteman daitekeen goranzko globalizazio prozesuaren ondorioz. Eta horregatik, gertaera orok eragin izugarria du, bai gizartean eta bai ingurumenean, eta mundu honetako bizitza jasangarrian eta bizikidetasun baketsuan eragina du.

Gaur egun biztanleriaren joan-etorriak inoiz baino ugariagoak dira, eta gaur egungo gizarteak inoiz baino anitzagoak eta pluralagoak dira. Eta aldi berean, orain gertatzen diren klima eta ingurumen aldaketak inoiz baino bizkorragoak eta sakonagoak dira, eta aberastasunaren banaketa inoiz baino desorekatuago dago; beraz, munduko biztanleriaren gehiengo txiro bilakatu da.

Azken 100 urteotan biztanleriaren hazkuntza esponentziala jazo da; horregatik eta gure bizitza-sistema, ekoizpen-sistema, kontsumo- eta balore-sistemen oinarrietatik, ingurumena larrialdi egoeran dago, eta arazo horri aurre egiteko ekintza globalak eta lokalak behar ditugu. Botere-dinamika gaiztoak betikotzen dituen sistema da, gizarteko sektore handiak sistematikoki baztertzen eta kanporatzen dituen, adibidez emakumeak; hauexek, hain zuzen, indarkeria fisiko, kulturala eta estrukturalaren tasarik handiena jasaten dute mundu mailan.

Testuinguru honetan, non intolerantzia eta gatazkak mantentzen diren, Herritar-tasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailerako Mugimendua lagun askorekin bat egiten du giza eskubideak defendatzeko eta justizia sozialaren mailarik handiena erdiesteko, pertsona guztien bizitza duina bermatzeko helburuarekin.

**Mundu ezberdin bat posible da. Beste era batean bizi gaitzke, jasangarriagoa eta barneratzaileagoa. Zailtasunak konplexuak dira oso, baina gaur egungo ezaupide zientifiko eta teknikoei esker, aurrean ditugun arazo asko ebatzi ahal ditugu, horretarako borondate politikoa badago behintzat. Gure planeta demografia-, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-presioa jasaten ari da, eta bertan bizitzen ikasteko hezkuntza behar dugu. Horregatik, gero eta globalizatuago dagoen egoeran etorkizuneko ikaskuntza definitze aldera, hezkuntza eredian eragiten duten eremu guztien inguruan gogoeta egin behar dugu, eta geure buruari hauxe galdetu:**





### Zertarako hezi?

**Nola izan behar du hezkuntzak, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko?  
Testuinguru sozial berria, hiritar egokiak eta sozialki arduradunak  
sortzeko gai den ikaskuntza nola antolatu beharko litzateke?**

## HEZKUNTZA BERRIZTAPENA, ZERTARAKO? ERRONKA BERRIAK, ESTRATEGIA BERRIAK, EMAITZA BERRIAK

Aurretik azaldu ditugun munduko arazoak erronka globalak dira, baina beren ondorioak lokalak dira ere, eta horiek egungo eta etorkizuneko belaunaldien errealitatea baldintzatzen dute. Beraz, arazo horiei ahalik eta hoberen aurre egiteko, baliabideak eta tresnak beharko dituzte, bizitza duina eta jasangarria lortzeko.

Hezkuntza berriztapenaren inguruan eztabaida eta proposamen ugari dago gaur egun, eta horregatik hobe dugu une batez lasaitzea eta geure buruari galdetzea: Zertarako berriztatu? Hezkuntza eredua berreraikitzeke unean oinarritzakoa izango da zer helbururekin hezten dugun jakitea, edukien, politiken nahiz metodologiaren inguruan, hezkuntzaren azken helburuarekin bat egin behar baitute.

Gaur egun politikaren eremua nonbait irainduta dago. Grezieraz politik (polis-en genitiboa) terminoaren jatorrizko esanahia berreskuratu behar dugu, hots, «herri-tarrena, herritarrentzat edo herritarrekin zerikusia duena». Ikuspuntu honetatik nabarmendu behar dugu hezkuntza, gizartea eraikitzeke tresna delarik, ez dela neutrala eta aldiz, kutsu politikoa izan duela, daukala eta izango duela; bere azken helburua subjektu politikoak eraikitzea delako, hau da, sozialki arduradunak diren «hiritarrak» eraikitzea. Arrakasta pertsonaletik eta lan-lehiakortasunetik haratago, hezkuntzaren helburua birbideratu, munduko biztanle garela erronkei kolektiboki eta modu barneratzailean aurre egiteko; hauxe harreman, ekoizpen, kontsumo eta abarreko eredu berriak sortzeko aukera bilakatzen da, gizarte orekatuagoak eta jasangarriagoak eratzeko gai.

**Hezkuntza gizarteratzeko elementu garrantzitsua da. Alde batetik, sistema desorekatu bat sendotzeko antolakuntza-, ezaupide-, balore- eta jarrera-sistema jakin bat erreproduzitzen lagun dezake; bestetik, gizarte zuzenagoa, berdinagoa, jasangarriagoa eta, azken finean, pozagoa eraldatzeko pertsona kritikoak eta konprometituak indartzeko tresna bihur daiteke, ordea.**





## **ZEINTZUK DIRA HEZKUNTZAREN ERRONKA GLOBALAK? 2030 AGENDA, NAZIOARTEKO KOMUNITATEAREN KONPROMISOA, GUZTION ARDURA**

Hezkuntza giza eskubide bat da, eta oinarritzko elementua da gizartea jasaten ari den aldaketak kudeatzeko eta gure mundua aldatzeko. Halaxe uste du Nazioarteko Komunitateak eta halaxe adierazten du Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan (OSD), Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailean onartuta.

Agendaren ekintza-eremu zabalaren barne hezkuntzarako helburu zehatz bat ezartzen da (ODS 4); helburu hau, halaber, 7 xede ezberdinetan bereizita dago, hezkuntzaren erronka globalei erantzun ematen saiatze aldera.

**ODS.4 Kalitatezko hezkuntza. Kalitatezko hezkuntza bermatzea, barneratzailea eta berdintasunean oinarrituta, eta bizitzan zehar guztiontzako ikaskuntza-aukerak sustatzea.**

Hezkuntza garapenerako funtsezko elementua dela agendak agerian uzten duelarik, hezkuntzaren ikuspuntu eraldatzailea nabarmentzen du ere. Horregatik, 4.7 xedean, irakaskuntzaren eta ebaluazioaren curriculumean eta jardueran, herritartasun globalerako hezkuntzaren, garapen jasangarriaren eta genero berdintasunaren sarrera aldarrikatzen da. Halaber, hobetzeko adierazletzat identifikatzen du hura hezkuntzarako politika nazionaletan, ikasketa-planen edukietan, irakasleen prestakuntzan eta ikasleen ebaluazioan barneratzea.

**4.7 Xedea. Hemendik 2030 urtera arte, garapen jasangarria sustatzeko ikasle guztiek ezaupide teoriko eta praktikoko guztiak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, alderdi hauek guztiak sustatuko dituen hezkuntzaren bidez: garapen jasangarria eta bizitza-estilo jasangarria, giza eskubideak, genero berdintasuna, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura, munduko herritartasuna eta aniztasun kulturalaren baliospena eta garapen jasangarriari kulturaren ekarpena.**

Nazioarteko konpromiso hauekin, herrialde guztiek adostutako helburuak estatu mailan ezarri beharko dituzte, eta gizarte, ekonomia eta hezkuntza politika publikorako gida bihurtu beharko dituzte. Eta ulertu beharra dago konpromiso hauek ez direla gobernuentzat soilik, baizik eta aktore ugariarentzat (bai pribatuak eta bai sozietate zibilekoak). Izan ere, hezkuntza komunitate osoa arduradun izango da mundurako eta pertsonentzako garapen jasangarria sustatzeaz.



**Nazioarteko testuinguruak munduko herrialdeen curriculumaren garapenean eragina du, eta horregatik hezkuntza-paradigma berria ezartzeko aukera agertzen da. Paradigma berri horrek hezkuntzari garrantzia ematen dio bizitza duin eta jasangarria erdiesteko oinarritzko gaitasun gisa, eta hezkuntza globala XXI. menderako beharrezkoa den hezkuntza gizabidetsu berria bihurtzen du.**

## **NOLA HEZTEN DUGUN HERRITARTASUN GLOBALEAN? MUNDU ZUZEN ETA JASANGARRIAN BIZITZEKO GAITASUNAK**

Globalizazio orokor honen ondorioz, inoiz baino gehiago sinesmen, kultura, ohitura sozial eta ikuspuntu ezberdinak dituzten pertsonekin lan egin, hezi, erlazionatu eta bizikide izan behar dugu. Gainera, gure ekintza indibidual eta kolektiboek eragin handiagoa dute atzerrian, eta beraz, gure ekintzek dituzten ondorio global eta lokalei buruz pentsatu behar dugu. Bestalde, gero eta lanbide-, hezkuntza- eta aisialdi-testuinguru gehiago daude gaur egungo gizartean (aurrez-aurre nahiz birtualak), eta kultura anitzeko izaera dute; bertan, tolerantzia eta errespetua ezinbestekoak dira ebazpen komunak aurkitzeko, indarkeria murriztea eta ezberdintasunak errespetatzea, munduko elkarbizitza hobetzeko.

**Hezkuntzaren ikusmolde humanistagoa izatea, oinarritzko ondasun komuntzat jotzea, hori da nazioarteko komunitatearen proposamena mundu osoko gizarteak jasaten ari diren presioa eta eraldaketa sakonei erantzun emateko eta bizitza eta garapenerako hautabideak eraikitzeko.**

Hezkuntzan ezarritako konpetentzia-eremuan, trebezia zientifiko eta linguistikoak eskuratzeaz eta baloratzeaz gain, globalizazioaren efektuak kontuan hartzea eta hezkuntza-prozesuetan alderdi hauek barneratzea ezinbestekoa bilakatzen da. Horretarako, justizia, berdintasun sozial eta solidaritate lokala eta globala sustatzen duten eremuetan eta ikaskuntza-ikusmolde berrietan jarri behar dugu arreta.


Honela, 2018 urtetik aurrera ELGEk Konpetentzia Globala sartu du PISAn (Ikasleak Baloratzeko Nazioarteko Programa); Konpetentzia Globalaren helburua da pertsona batek arazo edo egoera globalei, lokalei edo elkarren artean lotuta daudenei aurre egiteko duen gaitasuna, errespetuz, duintasunez eta arduraz arituz eta jasangarritasuna eta ongizatea bilatuz. Hezkuntzaren eremuan lan egiten dugun aktore ezberdinok, lehenik, honen inguruan gogoeta egin behar dugu, lan egin behar dugu eta osatu behar dugu, gizarte zuzenagoa eta jasangarriagoa eraikitzeko helburua duen hezkuntza ikusmolde berri honen garapenean aurrera egiten dugun neurrian.



# 1.2. ETA ORAIN... ZER?

## HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEA DA ERANTZUNA

Giza eskubideekiko eta munduarekiko errespetu handiagoa duten herritartasun era berriak sortzeko gai den hezkuntza sustatzea, hori izan da solidaritatearen eta lankidetzaren eremuan aritzen diren gizarte eta hezkuntza eremuetako sektore ezberdinen kezka aspaldian. Eta hori da hain zuzen ardatz nagusia: munduko pertsona eta herri guztientzat eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak babesteko herritartasun globala erabiltzea. Gizarte berria eraikitzean datza: gizarte zibil aktiboa, eskuduna, gai kolektiboengatik kezkatuta dagoena eta prozesu sozial eta politikoen garapenean protagonismoa aldarrikatzen duena. Dimentsio bikoitza du: pertsonala eta komunitarioa. Ohiko ekintza zehatza eremu lokalean gauzatzen ohi da, baina mundu mailako kontzientziarekin eta tokiko, estatuko eta nazioarteko betebeharren jabeengan eragin politikoarekin.



Ikuspegi bikoitz honek «pentsatu globalki, jardun lokalki» lema bereganatzen duelarik, analisia eta ekintza konbinatzen du, ongi dakielako globalki eta tokian gertatzen dena erlazionatuta dagoela justizia sozialarekin, giza eskubideekin, ingurumenarekin, generoarekin eta abarrekoekin zerikusia duten arazo guztietan. Horregatik «glokal» izena hartzen du, aldi berean globala eta lokala delako. Berdinen arteko mundu-mailako komunitate bat garela ulertu behar dugu, pertsona guztien ahalduntzea eta barneraketa behar duena justiziaren sustapenean eta txirotasunaren eta bazterketaren (generoagatik, etniagatik, kulturagatik, gaitasunengatik, etab.) aurkako gatazkan benetako parte-hartzea sustatzeko.

**«Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea»** (HGHE) da hezkuntza-paradigma honen izena. Justizia sozialaren eta garapen jasangarriaren sustapenerantz zuzenduta dagoelarik, hainbat pertsona eta erakunde horretan lanean aritu gara. Proposamen honek eztabaida, hausnarketa, etengabeko elkarriketa, enpatia eta ardura sustatzen ditu; hala berean, errespetutik eta eraikuntza kolektibotik errealitatea eraldatzeko eta egungo erronka lokal eta globalei erantzuteko gai diren pertsonen prestakuntza sustatzen du ere. Halaber, hezkuntza honek hauexek sustatzen ditu: aniztasuna errespetatzea eta estimatzea, hori baita giza aberastasunaren iturria; ingurumenaren aldeko kontzientzia, kontsumo arduratsua, giza eskubide indibidual eta sozialen errespetua, generoaren berdintasuna, elkarriketaren erabilera gatazkak bakean ebazteko tresna da; parte hartze demokratikoa, eta baterako erantzukizuna eta konpromisoa gizarte zuzenagoa, berdina eta solidarioa eraikitzeko orduan.

**Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea etengabeko giza-hezkuntza prozesutzat jotzen dugularik, honek herritartasun kritikoa, arduratsua sustatzen du, mundu zuzenagoa, orekatuagoa eta errespetutsuagoa eraikitzeko konpromisoa duena, bai globalki baita lokalki ere.**



Hezkuntza-paradigma berri hau gizakiaren inguruan eraikitzen da, berau baita subjektu historiko eraldatzailea. Halaber, paradigma honek hezkuntzaren jardura prozesutat hartzen du, ez bakarrik prozesu pedagogikoa delako, baizik eta prozesu etiko, politiko eta soziala delako, Herri Hezkuntzak hartzen duen bezalaxe<sup>1</sup>; azken hau bizitzaren eremu guztietan botere-harreman orekatu eta zuzenagoak eta gizakiaren gaitasun guztien garapen osoa eraikitzen saiatzen da<sup>2</sup>.

HGHErako Mugimenduak hezkuntza-prozesu hauek sustatu nahi ditu, horietan parte hartzen dugunon artean, bilatzen dugun gizarte motarantz eraldaketarako eta aldaketarako gaitasunak sortze aldera. Hezkuntzaren inguruan geure ikuspuntuak argi eta garbi eraldaketa hartzen du ardatz nagusizat: ez da gauza berbera desorekak eusten dituzten sistemak mantentzeko hezteak, eta gizarte zuzenagoak, berdinagoak, demokratikoagoak eta partizipatiboagoak eraikitzeko hezteak.

Beraz, defendatzen dugun Hezkuntza Eraldatzaileak proposamen politiko-pedagogikotzat jotzen ditu honako printzipioak:

- Hezkuntza erreflexiboa eta kritikoa: elkarrizketa eta eraketa kolektiboaren ikuspuntutik, errealitatearen analisi kritikorako (injustiziaren arazoaren kausak-ondorioak-hautabideak harremana) elementuak emateko gai dena (bai teknikoak, baita etikoak eta politikoak ere).
- Ekintzarantz bideratutako hezkuntza: Errealitatearen analisis oinarrituta, hautabide orekatuagoak eta solidarioagoak eratzeko erronkari erantzun ematen dien portaera indibidualak edota proiektu kolektiboak inspiratzeko gai dena.
- Hezkuntza prozesua da: ez da eduki multzoa, baizik eta ibilbidea, non edukiak eta metodologiak garapen pertsonalaren eta taldearen garapenaren prozesu eta uneei egokitzen zaizkien.
- Bakerako Hezkuntza, gatazkan eta gatazkatik: konfliktua ez da ukatzen edo saihesten; aldiz, elementu saihestezina suertatzen da elkarrizketa, enpatia, negoziatzeko gaitasuna eta lankidetzan oinarritutako hautabideen bilaketa sustatze aldera.
- Hezkuntza holistikoa eta diziplina-anitzekoa: pertsonaren garapen osotik eta osorako lan egiten duena, errealitatearen diziplina-anitzeko ikuspegia eraikitzen laguntzeko, ezagutza eta ezaupideak deskonektatzen eta testuingurutik kanpo uzten dituzten jokaera estankokoak alde batera utzita.

Ilido honetan eta nazioartean nahiz estatu mailan hartutako konpromisoari jarraiki (2030 Agendan islatuta), Herritartasun Globalerako Hezkuntza jomuga eta ezinbesteko tresna bilakatzen da hezkuntzaren ikusmolde gizatiarragoa eta eraldatzaileagoa eraikitzeko. Horregatik Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzaileerako Mugimendutik, hezkuntza-paradigma eraldatzailearen aldaketa honetan hezkuntza-eremuek, ikasgelek eta ikastetxeek aurrera egin dezaten lanean jarraitu nahi dugu, baita ikastetxeko kulturaren, praktiketan eta politikan hezkuntza-paradigmaren sarrera erraztu ere.

1 Herri Heziketak garapenaren eremuan eragin teoriko eta praktikoa sakona izan du. Herri Heziketak 1960 hamarkadan du jatorria, hezkuntza prozesu politiko, parte hartzaile eta eraldatzailetzat jotzen duen Paulo Freire hezitzaile brasildarraren ekarpenetan.

2 Jara Holliday, Oscar (2016): «Dilemas y Desafíos de una Educación para la Transformación. Aproximaciones freirianas». Gogoetarako Dokumentua. HGHE Mugimendua.



# 2 ATALA: IKASTETXE ERALDATZAILEAK. EZAUGARRI BEREIZGARRIAK

Ikastetxeko kulturaren, praktiketaren eta politiketaren Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea barneratzen duena da Ikastetxe Eraldatzailea (IE). Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzaile hori sustatzeko apustu egiten duten ezaugarriak dira IEren ezaugarriak, eta horiek, nonbait, justizia sozialaren alde aritzen diren ikastetxetaren ezarritako daude.

Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren lan ohitura sakona duten ikastetxetaren identifikatu dira ezaugarri hauek, esperientzien sistematizazio prozesu batean oinarrituta, eta irakasle, zuzendari, hezkuntzaren munduko espezialista eta abarrekin kontraste lanean eta elkarrizketan oinarrituta. Ezaugarriak, azkenik, hiru multzo nagusitan antolatuta dira<sup>3</sup>, honako elementuen arabera:

- Ikastetxearen kultura, hau da, ikastetxearen printzipioak, ikuspegia eta baloreak.
- Ikastetxean burutzen diren praktikak, oinarri pedagogiko eta metodologia eraldatzaile gisa.
- Ikastetxearen politikak, ikastetxearen plangintzan eta antolaketan islatzen direnak.

Eremu bakoitzeko funtsezko bost ezaugarri lehenetsi ditugu. Badakigu deskribapen zehatzagoa egin daitekeela, baina Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea garatzeko ezinbestekoak diren elementuak nabarmendu nahi izan ditugu.

3 eremuetan antolatutako 15 ezaugarrien sailkapen honek IEren ezaugarriak egituratzen eta antolatzen ditu. Aldi berean, honi esker ezaugarri guztiak elkarren artean harremanetan daudela ikusi dezakegu, beren eremuetan nahiz horietatik kanpo. Bestalde, justizia globala, genero berdintasuna, parte hartzea eta barneratzea estuki harremanetan daude, guztietan batera aurrera egiten baita, eta bata ezin baita erdietsi besteengan arretarik jarri gabe. Gainera, ikuspuntu hauen ikaskuntza areagotzen dituzten metodologiak partekatzen dituzte kultura-artekotasunaren, giza eskubideen, garapen jasangarriaren eta abarreko eremuek; eta horiek guztiak hezkidetzaren eremuan planteatu beharra daude. Orobat, ikastetxeko antolakuntzak erabakiak hartzeko prozesu parte hartzaile eta bateratzailea bultzatu beharko luke, haren kulturaren adierazten den bezala, sarean barne-harremana eta kanpo-harremana sustatze aldera, metodologia eraldatzaileen beharrak asetzeko.



3 Ainscow Mel, Booth Tony, 2015: "Guía para la Educación Inclusiva: desarrollando el aprendizaje y la participación en los centros escolares". [https://www.oei.es/historico/publicaciones/detalle\\_publicacion.php?id=151](https://www.oei.es/historico/publicaciones/detalle_publicacion.php?id=151)





# IKASTETXE ERALDATZAILEEN EZAUGARRIAK

## IKASTETXEAREN KULTURA printzipioei, xedeari eta baloreei dagokienean

1

JUSTIZIA GLOBALA ETA  
GIZA ESKUBIDEAK

2

GENERO  
BERDINTASUNA ETA  
HEZKIDETZA

3

KULTURARTEKOTASUNA  
ETA BARNERATZEA

4

PARTE HARTZEA

5

GARAPEN  
JASANGARRIA

## ONARRI PEDAGOGIKOAK eta metodologia eraldatzaileak

6

IKASKUNTZA  
SOZIOEMOZIONALA

7

ESPERIENTZIAZKO  
IKASKUNTZA  
ESANGURATSUA

8

METODOLOGIA  
KRITIKO, ERREFLEXIBO  
ETA KOLABORATIBOAK

9

ERAGIN ETA EKINTZA  
ERALDATZAILEA

10

IKASKUNTZA  
SORTARAZTEN DUEN  
BALORAZIOA

## IKASTETXEKO POLITIKAK plangintza eta antolakuntza

11

HGHEren  
CURRICULUMa

12

HGHE DOKUMENTU  
ESTRATEGIKOETAN

13

ANTOLAKUNTZA  
PARTIZIPATIBOA ETA  
INTEGRATZAILEA

14

ERNE BOTERE - ETA  
ARDURA-HARREMANEI

15

INGURUAREKIN LANA,  
SAREAN



IEen funtsezko 15 ezaugarrien proposamen honek eremu teoriko-praktiko orientatzailea dakarkio eraldaketa pertsonal eta soziala eta justizia bilatzen duen ikastetxeari. Gida hau erabilgarria da ikastetxeko antolaketan eta politiketan erabakiak hartzen dituzten zuzendarientzat, ikasgelan irakaskuntzaren arduradun diren irakasle indibidualentzat eta hezkuntza-prozesu eraldatzaileetan nolabait parte hartzen duten pertsona eta talde guztientzat, hau da: GEak, animazio eta aisialdiko elkarteak, bestelako elkarte eta GKEak, etab.

Gero eta kalitate handiagoa izango duen Hezkuntza Eraldatzailea gauatzeko aurrera egiten laguntzen dute ezaugarri hauek; halaber, beti sakondu beharreko alderdien katalogo baliagarria da eta, aldi berean, ahaztu ditzakegun oinarrizko alderdien oroigarria, koherentzian eta kalitatean sakontzeko ezarri beharko genituzkeenak. Horregatik ikastetxeko lehentasunen definiziorako laguntza bihurtzen da, baita proiektu, programa edo politika berriak martxan jartzeko hartu beharreko erabakientzako gida ere. Ikuspegi diagnostikoa egiteko, ikastetxeko egoera ebaluatzeko eta ezaugarri jakin baten joraketan nola garatu nahi den baloratzeko oinarri baliagarria da.





## 2.1. IKASTETXEAREN KULTURARI BURUZKO EZAUGARRIAK

IEak definitzen dituzten ezaugarriak biltzen ditu bloke honek, beren ekintzak eta erabakiak gidatzen dituzten balore eta printzipio etiko-politikoetarako dagokienean.

Nahiz eta «ikastetxeko kultura» termino zabala izan, Schein-en<sup>4</sup> interpretazioa onartuko dugu. Bere ustez, «antolakuntzen kulturak oinarritzko sinesmen partekatuen ereduak dira; talde jakin batek kanpo-inguruari moldatzeko eta barne-ingurua barneratzeko orduan aurkitzen dituen arazoak ebazteko eredu horiek barneratu dituelarik, horiek nahiko ongi funtzionatu dute eta horregatik azkenik zuzentzat jotzen dituzte; orduan eredu horiek kide berriei erakutsiko zaizkie, arazo horiek hautemateko, horien inguruan pentsatzeko eta horiek sentitzeko molde zuzen gisa».

Ikastetxearen eremuan, antolakuntzaren kulturaren edukia hauexek osatzen dute: praktika jakinen garapena zehazten duten egoerak, jarrerak, baloreak, sinesmenak, gaitasunak, eta irakasle komunitate batek gauzak egiteko duen modu partekatua. Egiten eta bilatzen dugun guztia definitzen eta bideratzen duten identitate ezaugarriak («zer» eta «zertarako»). Kultura zehatz honek hezkuntza komunitateko kideen hautematean eragina izango du, batez ere ikasleengan, irakasleengan eta zuzendariengan. Halaber, ikastetxeko politika eta egiturari dagokionean ondorioak izango ditu, hau da, bere antolakuntza sistemari dagokionean: erabakiak hartzeko prozesuak, parte hartzeko ereduak eta hezkuntza agenteen eginkizun ofizialak.

**Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea (proposamen etiko-politikoaren heinean) oinarri etiko-politiko zehatzetan eusten da; oinarri horiek hezkuntza eredu eraldatzaile honetan funtsezkoak dira, eta beharrez, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren egitura eta edukia zehazten dute. Ezaugarri hauek ikastetxeko proiektua bideratzen duten printzipioak direlarik, bertako xede, ikuspegi eta baloreetan barneratuta egon beharko lukete. Eta noski, ikastetxeko bizitzako eremu guztietan ezarrita egon beharko lukete.**



4 Schein, E. H. (2004). Organizational culture and leadership (3rd ed.). San Francisco: Jossey-Bass.

Honela, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea praktikatzeak esan nahi du hezkuntza praktikak eta proposamenak oinarri etiko honetan ezarri behar direla, oinarri etiko horren funtsa balore zehatzez osatuta dagoelako, lortu nahi den helburuarekin koherentea: garapen jasangarriaren eremuan justizia sozial handiagoa. Hezkuntza ikuspegi hau definitzen duten baloreak dira, eta nahitaez, ikuspuntu honetatik burututako edozein hezkuntza praktika edo proposamenaren eduki, printzipio metodologiko eta espero den emaitza bakoitzarekin konektatu eta agertu behar du. Gure oinarri etiko-politikoak finkatzen laguntzen gaituzte, egiten duguna zergatik egiten dugun hobeto ulertzen laguntzen gaituzte, eta honela, gure praktiken jatorria agerian jartzen laguntzen gaituzte.



# 1 EZAUGARRIA:

## JUSTIZIA GLOBALERANTZ ETA GIZA ESKUBIDEETARANTZ BIDERATUTA DAGO

**DEFINIZIOA:** Bere izaeran eta funtzionamenduan giza eskubideen babesa eta justizia soziala oinarritzko elementutzat jotzen dituen Ikastetxea. Justizia sozialaren zentzu etiko eta politikoaren garapena da bere hezkuntza helburua. Bere kideak hezteko orduan, lehen-tasuna jartzen da beren burua eskubideen eta eraldaketaren subjektutzat jo ditzaten, dagokien tokian baina ikuspegi globalean.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Herritarren kezka, hondar eta beharrekiko porotsua da, lokalki nahiz globalki. Aldaketa soziala bultzatzeko eta eskubideen jabeen indartzea sustatzeko tresna ahaltsua da; baliagarria da ere obligazioen jabeen erantzukizunak zehazten laguntzeko, dagozkien eskubideak aldarrikatzeko.
- Solidaritatearen alde eta bidegabeko praktiken, egituren eta sistemen aurka hezten du.
- Hezkuntzaren ekintzaren ardatza pertsonen bizitza eta munduaren jasangarritasuna dira.
- Giza eskubideak jorratu beharreko edukia izateari uzten diotelarik, hezkuntzaren oinarri bihurtzen dira. Edukiak ez dira batez ere behar ekonomiko eta sozialei buruzkoak (norberarenak edo komunitate txiroenak); edukiek askatasun zibilak eta politikoak biltzen dituzte, ordea (pertsona eta talde guztienak).





---

### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Justizia, giza eskubideen errespetua eta solidaritatea elkarrekin doaz eta osagarriak dira herritartasun globalean jardutean. Pertsonaren eskubideen defentsa eta bere duintasuna dira HGHEren oinarriak, interes ekonomiko eta politikoen gaitetik; pertsonak eta bizitza, zentzu zabalenean, edozein ekintza eta erabakiren ardatz nagusia dira eta lehentasuna dute.

Giza eskubideen ikuspuntutik lan egiten denean, horiek jorratu beharreko edukia izateari uzten diotelarik, hezkuntzaren oinarri bihurtzen dira. Arreta ez da behar ekonomiko eta sozialetan jarriko; aldiz, zabalagoa izango da, eta askatasun zibil eta politikoak agertuko dira. Gainera, eskubideen ikusmoldea hezkuntzan barneratzen dugunean, geure erabakia hartzen ari gara: kolektibo ahulenen alde jartzen ari gara, eskubideen jabeen ahalduntzea sustatzen ari gara eta betebeharren jabeen erantzukizunak zehazten ari gara.

Edozein pertsona askatasunez eta autonomiaz garatzeko aukera bermatzeko, solidaritate, berdintasun eta justizia sozialeko oinarri zabala erdietsi behar da. Bizitza duina eta jasangarria oinarritzat jotzen dituen garapena sustatzeko, beharrezkoa da derrigorrez mundua erronkak eta aukerak partekatzen dituen gizarte globaltzat hartzea. Horregatik, solidaritatearen eta justizia sozialaren sentimendu eta konpromisoaren eraikuntza lortzeko, HGHE beharrezkoa den ezagutzatik eta gertakizunen azterketatik haratago doa: egunerokotasunean hezkuntza komunitate osoan eta bereziki ikasleen artean gaitasunak, jarrerak eta baloreak garatzeko beharrari aurre egiten dio.

HGHEri esker mundua era holistikoan ikus daiteke, interkonektatuta eta batuta, non pertsona eta komunitate guztiek askatzeko aukera duten, eta ez dago elkarren arteko kontrolirik. Txirotasuna mantentzeko hautabideak daude, eta ideia horretatik jaio zen HGHE. Elkarren arteko erantzukizunak gain hartzea eta garapena edo mugak bezalako kontzeptuen inguruan gogoeta egitea dakar, gutxi batzuen aldeko oparotasunaren ohiko planteamenduarekin amaitzeko eta desberdintasunak murrizten dituzten bizitza formulak aurkitzeko, pertsona guztien elkarbizitza oparoa eta duina sustatze aldera.




## 2 EZAUGARRIA:

### GENERO BERDINTASUNA ETA HEZKIDETZA

**DEFINIZIOA:** Baterako hezkuntzaren eta genero berdintasunaren alde apustu egiten duen ikastetxea; horiek bere ekintza eta egituratan hautematen direlarik, bertan diren ezberdintasunak agerian uzten ditu eta horiek ezabatzeko konpromisoa hartzen du. Indarkeria matxistaren aurreikuspena biltzen du, baita ageriko curriculumean nahiz curriculum ezkutuan den errealitatearen azterketa kritikoa ere. Tokiko testuinguruan eta testuinguru globalean berdintasunaren alde aritzen da, bereziki eremu politikoan eta hezkuntzaren eremuan, erakundean barne.

#### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Ikastetxeko bizitza-eremu guztietan generoaren ikuspuntua ezartzen du, era koherente eta bateratuan, bai antolakuntza-politiketan baita hezkuntza jarduketan ere.
- Aldaketa sozialerako tresna da eta emakumeen eskubideak, genero berdintasuna eta emakumeen aurkako edozein motako indarkeriaren erauzketa sustatzen du.
- Herritartasun eredu berrien eraikuntza bultzatzen du, generoen artean ezarrita dauden botere harremanen eta pribilegioen eraldaketarantz zuzendutako balore, portaera, arau eta itzarobide sistemen bidez.





---

### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Gaur egun, beharrezkoa da genero-ikuspegia aintzat hartzea, zenbait desparekotasun mota eta eskubide-urraketa sortzen dituzten botere-harreman asimetricoei aurre egiteko.

Horregatik, giza eskubideen eta justizia sozialaren ikuspegitik lan egiteak berekin dakar mundu osoan bizi dugun sistema patriarkalaren eraginez emakumeek eta neskek maila guztietan (politikoa, soziala, ekonomikoa, kulturala...) jasaten duten diskriminazioari ikusgarritasuna ematea eta haren kontra borroka egitea. Beraz, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak helburua izaten jarraitzen du errealitatea baino; izan ere, egungo testuinguruan, indarkeriaren lehen kausa, forma guztietan, kolektibo handi horren aurka egiten dena da, eta munduko biztanleen erdiek osatzen dute kolektibo hori, hain zuzen ere.

Nazioartean, genero-berdintasunaren inguruko agindua eta emakumearen ahalduntzea munduko garapen iraunkorreko agenda berrian adostu eta lehenetsi da, baina, gizartean eragina izan dezan, eremu politikitik harago, genero-ikuspegiak hezkuntza-proposamen guztietan egon behar du, garapen-eta gizarte-eredu bidezkoago bat sustatzeko. Hezkuntza-proposamen horren funtsezko bi elementu emakumeen eskubideak eta ekitatea dira.

Hezkidetzak, genero-ekitatera, indarkeria matxistak prebenitzera, dibertsitatea zaintzera eta abarretara zuzenduta dagoenean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua berrikusten laguntzen digu, indarkeria matxistarik gabeko bizikidetzara bideratu ahal izateko, zentzurik zabalenean. Hezkuntza mistoaz haratago, hezkidetzak dago botere-harremanak orekatzea helburu duen hezkuntza-proiektu ororen oinarrian.

Begirada horren arabera, pertsona guztiek jasoko duten formakuntzan, balore-sistemak, jokaerek, arauak eta ikuspegiak ez dute hierarkizatuta egon behar sexuaren arabera. Halaber, desberdintasun indibidualak eta pertsonen ezaugarriak errespetatzen dituen hezkuntza mota izan behar du. Ikuspuntu horrek eskatzen du gizonei eta emakumeei ezarritako estereotipoak detektatu behar direla, haien jakitun izan, haien inguruan gogoeta egin eta beharrezkoak diren neurriak abian jarri behar direla, gure hizkuntzatik eta jokabidetik ezabatzeko. Hori dela eta, garrantzitsua da jarrera kritikoz lan egitea, estereotipoek gizonen eta emakumeen bizitza nola baldintzatzen duten kontzientziatzeko eta sentibilizatzeko, nola mugatzen duten zer sentitu, zer pentsatu, nola jokatu; izan ere, horrek pertsonen gaitasunen garapen osoa eragozten du, eta beraz, haien garapena eta ongizatea galarazten du..



# 3 EZAUGARRIA:

## KULTURARTEKOTASUNA ETA BARNERATZEA


**DEFINIZIOA:** Aniztasun kultural, etniko, linguistiko, erlijioso eta sozialaren balioa aintzat hartzen duen ikastetxea; halaber, ikasteko era ezberdinen, trebetasunen edo generoaren aniztasuna hezkuntza komunitatea eta bere osotasunean errealitatea aberasteko elementutzat hartzen du. Hezkuntzarako eskubidearen funtsezko elementua da barneratzea. Desberdintasunak kudeatzeko kultura-arteke eredia proposatzen du.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Partaideen identitate anitza onartzen du eta aniztasuna baloratzen du.
- Kategoria biologiko, sozial eta kultural ezberdinak konbinatzen direnean diskriminazioa nola handitzen den aztertzen du, adibidez, generoa, etnia, klasea, ezintasuna, sexu joera, erlijioa, adina, nazionalitatea...
- Errealitatearen ikuspuntu anitza dakarkigu, zentrismo ezberdinek aurkezten duten ikusmolde bakarraren aurrean: etnozentrismoa, antropozentrismoa, androzentrismoa, heldu-zentrismoa, heterozentrismoa, hiri-zentrismoa... Zentrismo hauek talde ahulenen desberdintasunak, ekarpenak eta beharrak estaltzen dituztelarik, harreman desorekatuak eta botere-abusuak dakartzate.
- Elkarren artean erlazionatuta dauden hiru eremu kontuan hartzen ditu: identitatea, partaide izatea eta komunikazioa. Herritartasun aktiboaren sorreraz jabetzeko eta hura ikasteko, eguneroko bizitzan agertzen diren zailtasunen eta aukeren azterketa erraztuko dute hiru eremu horiek.







### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Bazterketa, bereizketa, ezberdina den pertsonaren ukapena, arrazismoa edo xenofobia; aurreiritzien, estereotipoen eta orokortzeen erabileretan sostengatzen diren jarrera horiek guztiak ikusmolde honek ezagutzera ematen, salatzen eta ezabatzen ditu. Horregatik, desberdintasunak baloratzeko apustua (aniztasun edozein motatik) eta identitatearen onarpena funtsezko, oinarritzko eta zeharkako planteamendua bilakatzen da, giza eskubideen errespetuaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioarekin koherente izan nahi duen edozein hezkuntza proiektuan.

Geure kulturari jatorria ez duten pertsonekin harremanetan gaudenean kultura-artekotasuna plazaratzen delarik, honek bizikidetasunaren, aniztasunaren errespetuaren eta pertsonen edo gizataldeen arteko harreman interaktiboaren alde apustu egiten du. Bizikidetasunak esanahien, arau eta balore partekatuen, tolerantziaren eta malgutasunaren eraketa dakar; noski, gatazka ekar dezakeelarik, hura sormenezko eran ebazteko ikaskuntza ezinbestekoa da ere.

Edozein mailatan gero eta sarriagoak diren kulturen arteko harremanak berdintasunean gauzatu behar dira, mendekotasunik edo edo nagusitasunik gabe, erabakiak nola hartzen diren eta boterean nola jarduten den aztertuta. Honela, guretzat kultura-artekotasuna apustu etiko eta politikoa da. Honek, pertsonen arteko harremanak sustatzen ditu gizarte bateratura heltzeko funtsezko bidetzat, non bakoitzaren duintasuna kontuan hartzen den eta guztien parte-hartze aktiboa posible den. Horretarako ezinbestekoa da dimentsio ekonomikoak, sozialak eta politikoak kontuan hartzea, injustizia eta desberdintasun egoerak oztopo argiak baitira kultura-arteko prozesueta.




# 4 EZAUGARRIA:

## PARTE HARTZEA

**DEFINIZIOA:** Gizarte eta hezkuntza proiektu partekatuaren eraketan hezkuntza komunitatearen parte-hartze aktiboa sustatzen duen zentroa da. Ikasgelan eta taldeetan ezagutzaren eraketa kolektibotik ordezkartza eta erabakien egitura demokratikoetara, parte-hartzea nonahi dago; horiek hezkuntza komunitate osoari protagonismoa emango diotelarik, ordezkartzaren eta erabakien eremuan aniztasunari lehentasuna emango zaio.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Parte-hartze demokratikoa ezartzen ikasteko eremua bilakatzen da ikastetxea: eztabaidak, elkarrizketak eta kolektiboki erabakiak hartzea, hau da herritartasun aktiboa eratzeko modua.
- Ikastetxearen dimentsio sozial, kultural eta politikoa onartzen du, eta prestakuntzarako tresnatzat jotzen ditu hezkuntza eta pedagogia ekintzak, beraz gizartearen eredu aldatzeko tresnatzat ere.
- Ekintzarantz zuzenduta dago eta sistema malgua du. Horri esker ikastetxea komunitateri irekiko zaio, eta inguruko elkarrizketa eremuetan parte hartzen proiektatuko da.
- Ezagutza eraketa kolektiboa da, eta komunitate ezberdinetako ezaupideak onartu eta barneratuko ditu, parte-hartzean eta kultura-artekotasunean oinarrituta.





### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Mugapenak badira ere, HGHEk hezkuntza aldaketarako agentetzat jotzen du, eta eskolak askapen-aukerentzako eremutzat. Horretarako, alde batetik hezkuntzaren eremu publikoa ulertu beharra dago, Habermas-en<sup>5</sup>, ikuspuntutik, **hau da, hezkuntza parte-hartze demokratikoa gauzatzen**

**ikasteko eremua da: eztabaidatu, hitz egin eta kolektiboki erabakiak hartu.**

Eta bestetik, hezkuntza politika kulturaltzat jo beharra dago, hau da, eskolak eta hezkuntzaren ekintzek dimentsio sozial, kultural eta politikoa dute, eta pedagogiak testuinguru bati erantzun ematen dio eta beraz, aldaketa soziala ekar dezake.

Eskolak «esfera publiko demokratikotzat» hartzen baditugu, orduan hezkuntza neutrala ez dela eta helburu teknokratikorik ez dutela onartzen ari gara eta, aldiz, berdintasunaren, herritartasun kritikoaren, demokraziaren, justizia sozial eta ekonomikoaren balioekin konpromisoa hartzen duela onartuko dugu. Gainera, esfera edo komunitate demokratiko gisa funtzionatu ahal badute ere, eskolek sistema malgua izan behar dute, ireki eta proiektatu ahal izateko eta honela, ingurumenetik ekarpenak jasotzeko.

Halaber, jarrera demokratikoa eta partizipatiboa garatzen denean, ikaskuntza dialogikoa bultzatzen duen, ingurumeneko elkarrizketa-eremuetan parte hartzen duen eta ekintzarantz bideratzen den eskola eraikiko da. Ikastetxe erreflexiboa garatu beharra dago, non baterako ikasketa gertatzen den; bertan, ezagutzaren komunikazio eta eraketa kolektiboko prozesuak eraikitzen dira, eta hezkuntza-komunitate osoak, bizipen pertsonaletan eta praktika eta proposamen zehatzetan oinarrituta, bere praktikak aztertu, baloratu, hausnartu eta ikasi ahal du, indibidualki nahiz kolektiboki, honela ikastetxean barne eta kanpo proposamenak eratzeko. Hauek oinarritzko elementuak dira Eskola parte-hartzeko ikastetxe bihurtzeko, non gizarte-agenteeek, bere osotasunean, ikasleek benetako demokrazian bizi daitezzen beharrezkoak diren ezaupideak eta gaitasunak ikasteko ekarpena egiten duten.

5 Habermas, Jürgen. (1962/1981). Historia y Crítica de la opinión pública. Barcelona. Editorial Gustavo Gili.




# 5 EZAUGARRIA:

## GARAPEN JASANGARRIA

**DEFINIZIOA:** Ingurumen- eta ekonomia-jasangarritasunarekin konpromisoa duen ikastetxea, non ardatz nagusia pertsona guztien bizitza duina erdiestea eta natura zaintzea den. Sistema ekonomiko interdependentearen ondorioak ezagutzen dituelarik, giza bizitzaren gaineko kontzientzia kritikoa nahiz munduarekiko eta bertako bizitzarekiko ekintza arduratsua sustatzen ditu.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Gizaki guztien harremanaz eta baterako mendetasunaz gain, horien arteko elkartasuna planteatzen da, hura medio natural partekatua ezaugarria baita. Honela, naturarekin eta inguruarekin harreman berriak sustatzen ditu, adeitsuagoak, eta ingurumenarekiko errespetu handiagoa duten beste kulturen eta mundu-ikuskeren ikuspegia barneratzen du.
- Ordezko ekoizpen eta kontsumo sistemak sustatzeko konpromisoa hartzen du, ingurumenarekin eta pertsonen bizitza duinarekin errespetutsuak direnak. Horretarako, gizakiaren jarduerak eta hezkuntza-ekintzak medioan duten eraginean arduatuko da, eta aztarna ekologikoa edo zor ekologikoa bezalako alderdiak aztertuko ditu.
- Ikuspegi kritikoa eta ingurumenarekin konpromisoa sustatuko ditu, aldi berean txirotasunari eta ingurumenaren degradazioari aurre egiteko. Muga sozialen (gosea, desberdintasuna edo osasunik eza) eta munduaren edo ingurumenaren mugen (klimaldaketa edo biodibertsitatearen galera) elkarren arteko harremana kontuan hartzen du ikuspegi honek.





### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Gaur egun nagusi den garapen ekonomikoaren eredua ez da bateragarria ekonomiaren eta ingurumenaren jasangarritasunarekin, eta gure munduan bizitza arriskuan jartzen ari da gaur egun nahiz etorkizunean. Duela gutxi egindako ikerketek frogatzen dute ohiko hazkuntzako politikek bi alderdietan porrot egin dutela: alde batetik, BPGd-aren hazkuntzak txirotasun egoeran bizi diren pertsonen ez die onurarik ekarri (munduko aberastasun/errentaren % 50.1 duen biztanleriaren % 11 gehiago aberastu da), eta bestetik, erdietsitako hazkuntzak, neurri handi batean, baliabide naturalen degradazioa ekarri du.

Pertsona guztien ongizatea dakarren sistema ekonomikoa sortu nahi badugu, aldi berean gure munduko ingurumenaren oreka errespetatzen duen ekoizpen- eta kontsumo-sistema ezarri behar dugu. Txirotasunari eta ingurumenaren degradazioari batera aurre egin behar zaie, muga funtzional nagusiak, muga sozialak (gosea, desberdintasuna eta osasunik eza) eta munduko edo ingurumeneko mugak (klima-aldaketa edo biodibertsitatearen galera) berez elkartuta baitaude.


Ingurumenaren jasangarritasunaren ikuspegitik hezteko beharrezkoa da kritikoki krisialdi ekologikoari buruz hausnarketa egitea, eta belaunaldien arteko harremanaren testuinguruan hura kokatzea, horrek argi eta garbi erakutsiko baititu elkarren arteko loturak, eremu geografikoen arteko eta kontsumo ohituren arteko loturak, besteak beste. Antzina ingurumenaren arazoak ulertzeko nahikoa zen tokiko kausa-efektua aztertzea, baina gaur egun tokiko gauzek globaltasunean eragina dute: klima-aldaketa, ozono-geruzaren murrizketa, espezieen iraungipena. Gaur egungo gizartea, gehiegizko kontsumoan oinarrituta, ez da bateragarria (pertsonen eta munduaren) bizitza posible egiten duten baldintzekin. Halaxe dio nazioarteko komunitateak duela urte asko, eta halaxe biltzen du garapenerako agenda berriak ere. Bertan, sinatu duten herrialde guztietan garapen jasangarriaren gaineko hezkuntzari lehentasuna ematen zaio.

Zientziak dagoeneko frogatu du txirotasunarekin amaitzeko, ez dugula baliabide naturalen gaineko presioa handitu behar. Gizateria eremu seguru eta orekatura eramatea, horrek izan behar du hazkuntza ekonomikoaren helburua; honela txirotasunarekin amaituko dugu eta baliabide natural mugatuak jasangarritasunez erabiliko ditugu. Zer esan nahi du erronka honek hezkuntzari dagokionean? Ingurumenarekiko errespetu handiagoa duten beste kulturen eta mundu-ikuskeren ikuspegia kontuan hartzea beharrezkoa da, baita horiek antropozentrismoari buruz egiten duten analisia eta kritika ere. Halaber, interesgarria da ere eskola eta komunitatea naturarekin eta inguruarekin armonian harremanetan jartzen dituzten hezkuntza jarduerak.



## 2.2. OINARRI PEDAGOGIKOEI ETA METODOLOGIA ERALDATZAILEEI BURUZKO EZAUGARRIAK

**Ikastetxe eraldatzaile baten kultura egituratzen duten ikusmolde eta ikuspuntuek, oinarri pedagogiko eta metodologia zehatz batzuk sortarazten dituzte, erakutsi nahi diren balore eta printzipioekiko koherenteak direnak.** Horregatik, ikastetxe batek Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen alde egiten duenean, askotan hezkuntza berriztapenerako prozesuak ezartzen dira. Prozesu horietan zehar irakaskuntza-ikaskuntza, hezkidetzak eta kultura-artekotasun prozesuak nola burutu behar diren galderari erantzun ematen dioten praktikak eta metodologiak berrikusten, berritzen, baieztatzen eta esperimendatzen dira, curriculum ofizialaren garapena posible egiteko, baina justizia globale-rantz, giza eskubideetarantz, genero berdintasunerantz eta garapen jasangarrirantz bideratuta.



**Balore etiko-politiko hauetan aurrera egiteko, pertsonaren eremu guztiak biltzen dituzten metodologia eraldatzaileak proposatzen dira: alderdi afektiboa ikaskuntza sozioemotionalaren bitartez, alderdi kognitibo-intelektuala ikaskuntza kritiko-erreflexiboaren bitartez, eta alderdi aktiboa esperientziako ikaskuntza esanguratsuaren bitartez.**

Praktika hauek, etorkizunean errealitatea aldatzeko gaitasuna emateaz gain, eta ondorioz mundu orekatuagoa eraikitzeko gaitasuna emateaz gain, orainean aldaketak ekarri behar dituzte eragin politikoaren eta ekintza eraldatzailearen bitartez. Hau guztia ebaluazio eremuaren barne gauzatuko da, non ikaskuntza gertatzen den, prozesua hobetzen laguntzen den, eta murgildutako pertsonak ez diren epaitzen.



Aurkitutako bost ezaugarrietatik eratortzen diren printzipio pedagogikoak hauexek dira:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei aurre egitea, hezkuntza ekintza politikoa dela jakinda.
- Hezkuntza ekintzaren gunean pertsona jartzea, dimentsio guztiak biltzen dituen ikuspuntu integraletik (fisikoa, kognitiboa, afektiboa, soziala, izpirituala, etab.), bere bizitza esperientziekin lotzen dena.
- Ikuspegi holistikoa, errealitatearen osagarri guztiek elkarren artean harreman sistematikoa dutela erakusten duena, eta elementu guztiak berez existitzen den guztiarekin harremanean daudela erakusten duena. Irakaskuntza ezin da zatikatu, ikaskuntza esanguratsua globalki eskuratzen delako, ezagutzaren eremu guztiak ezagutza bakar batean integratuta.
- Errealitatea eraldatzeko pertsonak, taldeak eta erakundeak duten gaitasuna, hori da bere ardatza. Horregatik, errealitatea kritikoki ikustera gonbidatzen gaitu, hezkuntza komunitate osoa biltzen duten inguruen, egituren eta prozesuen eraldaketan helburuak proposatuta. Hezkuntza prozesuek edukiak hedatzeaz gain, pertsonaren, taldeen eta gizartearen askapenerako eta eraldaketarako proposamenak dira.
- Ezagutzaren eta eraldaketaren eraketa kolektiboki ageri da pertsona guztien arteko topaketan, entzutean eta elkarrizketan, ezaupide guztiekiko.





# 6 EZAUGARRIA:

## IKASKUNTZA SOZIOEMOZIONALA

**DEFINIZIOA:** Ikastetxe honek emozioetan jartzen du arreta, eta bizitzarako gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko metodologiak sustatzen ditu; horiei esker, hezkuntza komunitateko pertsona guztiak beren inguruko errealitatearekin sormenez lotu daitezke, eta horretaz kezkatzeko aukera izango dute ere.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Ikasleen gogo-aldarteak antzematen du, badaki taldea nola dagoen eta ikasle bakoitza emozionalki nola dagoen.
- Emozioen garapena eta bilakaera suspertzen duten metodologia sozio-afektiboak erabiltzen ditu, ikaskuntza esanguratsuan barneratuta.
- Gaitasun sozio-afektiboen eskuraketa eta garapena sustatzen du, hots: sentimenduak hautemateko eta izendatzeko adimen emozionala, autoestimua, enpatia, frustrazioaren kudeaketa eta gatazken ebazpenean lankidetzak.
- Ikasleen adierazpen emozionalak bultzatzen ditu eta adierazpen horien ondorio diren produktu plastikoak hezkuntza ekintzetan barneratzen ditu.





### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Ikuspegi hau hezkuntzaren dimentsio sozioemozionalean datza. Haren barne, eskola-eremua eta taldeen osaketa eremu afektiboak dira, hezkuntza etengabeko erlaziozko aldaketa-esperientzia bihurtzen dutena; bertan elkarrekiko harremanak, interakzioak, erlazioek eta bizipenek hezten eta eraldatzen dute. Pertsonen emozioez, balioez, ardura sozialaz eta errealitatearen eraldaketarekin konpromisoa hartzeko beharraz jabetzen diren identitateen eraikuntza proposatzen da ikusmolde honen pean.

Ikastetxe batean bizi diren esperientzia afektiboak ugariak eta anitzak dira, eta hezkuntza komunitatearen parte diren pertsona eta kolektibo bakoitzarengan eragina dute. Horietaz guztiez jabetzea beharrezkoa da; ezagutu beharra daude, epaiketarik gabe eta arduraz jokata. Horretarako, ikasleen eta irakasleen auto-ezagutza pertsonal mailan beti aurrera egitea ezinbestekoa da (gertatzen ari zaienaren kontzientzia beti aurrera egin behar duena), baita gainerako sentimenduak hautemateko enpatia mailan aurrera egitea ere, beren desioak, gogoetak eta sinesmenak ulertzeko.

Pertsona da emozioaren subjektu nagusia, eta beraren inguruan jazoko da hezkuntza. Baina egia da bizipen afektibo gehienak taldearekin harremanean gertatzen direla; gaitasun sozioemozionalen garapenerako tresna pribilegiatua bihurtzen du horrek, bereziki poztasun indibidualarekin batera eraldaketa sozialerantz bideratu nahi dugunean.

Emozioen hautemate eta mobilizaziorako tresna pribilegiatua da gorputza; horregatik, ikaskuntza sozioemozionalak etengabe gorputzaren arreta behar du, baita sentimenduak mugiarazten dituen metodologiak erabiltzea, Gorputz Hezkuntza eta bestelako eremuak adibidez.

Herritartasunaren ikaskuntza eta eraketa prozesuetan, oinarrizko lau emozioekin erlazioatutako sentimenduak agertzen dira. Hauexek landuko ditugu:

- » Giza eskubideen haustearen aurrean haserrea, eta horiek bermatzeko ardura eta betebeharra duten erakunde eta pertsonen urratzearen aurrean haserrea.
- » Tristura injustiziaren ondorioa da, eta hura sufritzen duten pertsonen eta kolektiboenganako enpatiaren ondorio da ere.
- » Etorkizunean izan daitekeen eskubideen urratzearen aurrean beldurra, eta mundu globalean urratze horrek eragiten gaituela jakitea, bai gaur egun baita etorkizunean ere.
- » Justizia sozialaren alde eraldaketa prozesuetan parte hartzeagatik sortarazten den poza, baita aldaketa horiek sortzeko parte hartzen duten erakundeekin lankidetzan aritzeagatik ere. Borroka horretan erdiesten diren arrakastengatik poza.




# 7 EZAUGARRIA:


## ESPERIENTZIAZKO IKASKUNTZA ESANGURATSUA

**DEFINIZIOA:** Giza eskubideekin konpromisoa duen herritartasunaren eraketan parte hartzen duen ikastetxea, ikasleen errealitatearekin konexioak ezartzen dituen prozesuen bitartez, tokiko koiuntura egoera globalekin konektatzen duena. Aldaketa politiko eta sozialen sorrera sustatzen du.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Errealitatearen ezagutza sakona du (ikasleen bizipenei eta inguru lokalari eta testuinguru globalari dagokienez) giza eskubideei eta genero berdintasunari dagokionean.
- Hezkuntza jarduera eta aurkitutako beharrak konektatzen ditu, eta curriculumaren edukiekin konexioak ezartzen ditu.
- Curriculumeko gaitasunak eta edukiak garatzen dituzten metodologiak ezartzen ditu, eta batera, errealitatea eraldatzen eta herritartasun globala eratzeko laguntzen duten ekintzak burutzen ditu. Adibidez, ikaskuntza-zerbitzua; ikaskuntza eraldaketa prozesuetan oinarrituta; jokoak, antzerkigintza bezalako hezkuntza prozesuetan barneratutako bizi-esperientziak, ...





---

### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Ikastetxe eraldatzaile batek, hezkuntza komunitatean eta bere inguru lokal eta globalean dauden errealitate sozial ezberdinekin zerikusia duten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak sustatzen ditu. Bere printzipio eta baloreak errespetatuta egiten du hori. Gauzatu beharreko aldaketak hautematen ditu, eta hori lortzeko dituen baliabideak erabiltzen ditu. Bitartean, ikaskuntza esanguratsua dela bermatzeko, hura ikasleen bizi-esperientziekin konektatzea ezinbestekoa da; batez ere eskubide eta arduren subjektua dela bere errealitatearekin zerikusia dutenak, eta parte hartzen duten botere- eta ardura-harremanekin zerikusia dutenak.

Curriculum edukien eta ikasleen interesen eta esperientzien artean konexioak ezartzeaz gain, irakasleekin konexioak ezarri beharra daude ere, batez ere agente politiko kontzientea diren heinean.

Motibazioan, ikasgaiaren ezagutzan, irakaskuntzen ezaugarri praktikoan eta batez ere, hezkuntza prozesuaren gaitasun eraldatzailean hazkuntza nabarmengarria erdietsi daiteke, hezkuntzaren jarduketa eta bere edukiak agenda eraldatzaile lokal eta globalarekin koordinatuta baldin badaude, adibidez Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendarekin; agenda ekologistarekin, agenda feministarekin, Hezkuntzaren aldeko Mundu mailako Kanpainaren agendarekin, ...




# 8 EZAUGARRIA:

## METODOLOGIA KRITIKOAK, ERREFLEXIBOAK ETA KOLABORATIBOAK

**DEFINIZIOA:** Globalki eta lokalki eragiten gaituzten arazo nagusiak, eta bien artean dauden harremanak ulertzea, hori da ikastetxe honek duen helburua. Ikuspuntu kritikotik egiten du hori, hau da, giza eskubideetan eta genero berdintasunean oinarrituta. Iritzien trukaketa, hausnarketen alderaketa eta azterketa kritiko kolektiboa partekatzea posible egiten duten metodologia kolaboratiboak sustatzen ditu.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Kontzeptuen erreproduzio erreplikatuak ekiditen du. Ezagutzaren alderdi kognitiboak eta gorputz-ikaskuntzak eta ikaskuntza sozioemozionalak lotzen ditu errealitatearen azterketa kritikorako gaitzeko, errealitate hori ulertzeko eta harengan jarduteko.
- Komunikazio prozesuak nahiz ezagutzaren eraketa kolektiboaren prozesuak sortzen ditu. Honela ikasketa kritikoa, zalantzan jartzean oinarritzen dena, erdiesten da; tokiko eraldaketarako eta eraldaketa globalerako pertsona eta kolektibo bakoitzaren paperaz jabetzea ahalbideratzen du. Errealitatea eraldatzeko proiektuak eta prozesuak eraikitzen ditu.
- Hari esker, hezkuntza komunitate osoak (eraldaketa pertsonal eta kolektiborako bizipen pertsonaletan eta praktika zehatzetan oinarrituta), indibidualki eta kolektiboki, praktikak aztertu, baloratu, horien inguruan hausnartu eta ikas ditzake, baita jarduteko barne eta kanpo proposamenak eratu ere.
- Errealitate sozialen ezagutza prestakuntza prozesuetan barneratzen ditu, bai berehalako ingurukoak baita globalak ere. Hori egitean, ezinbestekoa da komunikabide nagusiek ematen dituzten berrietatik haratago joatean, hau da, garapenerako elkarteek eta GKEek ematen duten munduaren ikuspegiarekin osatzea berri horiek.





### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Errealitatea kritikoki aztertzeko gaitasuna oinarrizkoa da, eta honek beste gaitasunak eskuratzeko modua baldintzatzen du, adibidez gaitasun sozialak eta gizabide gaitasunak. Edukiak erreproduzitzen ikasiz gero eta alderdi kritikorik gabeko errealitatea ulertuz gero, normalean errealitate hori erreproduzitzeko joera mantenduko da, eta ez hura eraldatzeko joera.

Azterketa kritikoa egiteko, ikastetxe eraldatzailearen kulturaren ikuspegi adierazgarriak errealitateari aplikatzen zaizkio: giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia, justizia globalari begira; generoaren ikuspegia; ingurumenaren jasangarritasunaren ikuspegia, kultura-arteko ikuspuntua, ikuspuntu barneratzaile eta partizipatiboa.

Hausnarketa eta elkarren arteko parte-hartzea sustatze aldera, errealitatea kritikoki begiratzeko metodologia eta proposamen ugari dago. Horiei esker testuinguruak, egiturak eta prozesuak eraldatu ditzakegu. Proposamen horiek partizipatiboak, irekiak eta malguak dira, hezkuntza komunitate osoa barneratzen dute eta beste antolakuntzekin sinergiak bilatzen dituztelarik, pertsona bakoitzaren duintasunari eta justizia sozialari lehentasuna ematen diete.

Metodologia hauen elementu nabarmengarria elkarrizketa eraikitzailea da. Ikaskuntzaren komunitateetan adierazten den ikaskuntza dialogikoaren alderdi adierazgarria izateaz gain, beste hezkuntza jarduketetan ageri da ere. Sormenezko parte-hartzea oinarrizkoa da ikasgelaren barne nahiz bertatik kanpo. Taldearen barne, berdinen arteko interakzioetan, esperientzien trukaketan, elkarren arteko hausnarketan, ezaupideen trukaketan, esperientzia guztien balorazioan, berdinen arteko ekarpenetan ageri da. Ikasgelatik kanpo, inguruarekin elkarrizketa eremuetan eta bertatik eratortzen diren ekintzetan ageri da.




# 9 EZAUGARRIA:

## ERAGIN ETA EKINTZA ERALDATZAILERAKO JARDUERAK


**DEFINIZIOA:** Ikastetxe honek badaki hezkuntza politika dela, herritartasuna eta gizabidea eraikitzeko zentzu etimologikoan. Honela, irakasleek eta nolabait ikasleek, agente politikoaren paper nabarmengarria dute. Honela, curriculum edukien esperientziak ikaskuntzaren prozesuak burutzeko tresna bihurtzen da eragina.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Hezkuntzaren jarduketa ekintza politikoa dela daki, eredu sozial eta ekonomikoa norabide zehatz batean mantentzen edo hura aldatzen laguntzen duelako.
- Herritartasun globalaren alde eragin-ekintzak burutzen ditu, eta horiek baliabide pedagogikoak direla erabiltzen ditu, berehalako inguruarekin konpromisoa duten eta testuinguru globalarekin konektatuta dauden ekintzen bidez curriculum edukiak eskuratze aldera.
- Justizia sozialaren alde GKE, elkarte lokal eta abarrekoek sustatzen dituzten eragin eta sentsibilizazio kanpainetan ikastetxearekin parte hartzen du.







---

### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Ikastetxe, toki-inguru eta politika publiko mailan eraldaketa prozesuetan eragiteko gaitasuna da eragina. Teoria eta praktikaren arteko elkarrizketa-harremana delarik, praktikak errealitatearen eraldaketa bilatzen du, errealitatearen azterketa kritiko eta historikoan oinarrituta. Bere euskarri nagusiak, printzipio politiko eta hezkuntza printzipio diren gizarteratzea eta eskubideen erabilera dira. Halaber, gizarte zuzen eta barneratzailea eraikitzea da bere helburu politiko-kulturala, non giza-harremanak berdinen artekoak diren.

Sarritan, hezkuntza ekintza politikoa dela ukatzen dute hezkuntza komunitatean dauden pertsonak. Besterik gabe, beren lana kulturaren hedapen aseptiko eta apolitikoa dela diote. Tamalez, nagusi den eredu sozioekonomikoa sendotzen du ikuspuntu horrek. Hau da, horri esker gauzek diren moduan jarraitzen dute. HGHEk, ordea, errealitatea eraldatzeko eta eragiteko gaitasuna eraikitzen du, giza eskubideak betetzera derrigortuta daudenen aurrean. Kezka, curiositatea, berriztapen hauslea, emakume eta gizon protagonista aktibo, historiaren eraikitzaile, subjektu eraldatzaile gabela geure burua eraikitzeko bilaketa, hori guztia dakar. Munduko herritartasun demokratikorako, bizitza defendatzeko, solidaritatearen globalizatorako, eta abarrerako hezkuntza bilatzera eramango gaitu.

Eragina potentzial handiko baliabide pedagogikoa da. Hari esker izaera sozioemozional garrantzitsua duen esperientziako ikaskuntza errazagoa delarik, berehalako ingurumenarekin konpromisoa duen eta testuinguru globalarekin lotuta dagoen ekintzaren bidez curriculumaren edukiak eskuratuko dira




# 10 EZAUGARRIA:

## IKASKUNTZA ETA HOBEEKUNTZA DAKARREN EBALUAZIOA

**DEFINIZIOA:** Ikastetxe honek elementu hauek barneratzen ditu: ikastetxeko hezkuntza praktikei eta politikei buruzko balorazioa, esperientzien sistematizazioa eta etengabeko ikerketa (ikerketa-ekintza partizipatiboa). Horiei esker, ezagutza partekatua eta ikaskuntza nabarmengarriak eraikitzen dira, elkarren artean trukatu ahal direnak, ikastetxean bertan eta bestelakoetan herritartasun globalerako hezkuntza ekintzak hobetzeko.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Balorazioa epaitzeko tresna delarik, hura erabiltzeari utziko dio; aldiz, ikaskuntzak aurkitzeko eta sozializatzeke erabiliko du.
- Esperientzien sistematizazio prozesuak ezarriko ditu, honela, ikastetxean bertan edo haren komunitateak bizi izan dituen epe ertain eta laburreko prozesuetatik ikaskuntzak erauzteko.
- Herritartasun globalerako irakaskuntza-ikaskuntza prozesu arrakastatsuen hobekuntza eta ezarpenerako, esperientzien ebaluazioa, ikerketa eta sistematizazioa tresnatzat jotzen dituen ikastetxearen kultura sustatzen du.





---

### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Ebaluazioari esker, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruzko informazio garrantzitsua jasoko dute hezkuntza agenteek. Potentzial hori duen arren, ikasleak eta, neurri txikiagoan, irakasleak epaitzeko tresnatzat erabili ohi da. HGHE ez da etekin homogeenaren estandarretan oinarritzen; aldiz, prozesua, autonomia, sormena, lankidetzeta, elkarrizketa eta halako elementuetan oinarritzen da.

Ebaluazio eta ikerketa era hau ikastetxean sistematizatzen eta ezartzen bada, kultura partekatu gisa, orduan prozesuetan jazotzen diren eta gainerako irakaskuntzan sozializatu daitezkeen ikaskuntzak (pedagogikoak eta edukikoak) kolektiboki aurkitu, izendatu eta eraiki daitezke.

Ebaluazio eta ikerketa partizipatiboko kultura honek, eztabaidatzeko, hausnarketa egiteko eta erabakiak hartzeko eremuetan hezkuntza komunitatearen agente ezberdinen kalitatezko parte-hartzea bermatzen du.

Beraz, ikuspuntua da ezagutzaren eraketa kolektiboari ekarpena egiten diola, eta epaiketa pertsonal edo kolektiboaren ikuspuntua alde batera uzten du; ondorioz, ebaluazio prozesuan parte hartzen duten agente guztiak (batez ere ikasleak eta irakasleak), esperientzian gertatu zenetik ikasteko prest egongo dira, eta jarrera irekiago izango dute, kritikoa, autokritikoa eta erreflexiboa.



## 2.3. IKASTETXEAREN PLANGINTZA ETA ANTOLAKETARI BURUZKO EZAUGARRIAK

Ikastetxetako politikei, horiek antolatzeko eta planeatzeko erei esker, baldintza egokiak agertuko dira sor daitekeen edozein proposamen ezartzeko eta sendotzeko, era koherente eta integralean, ezarpen, hedapen eta sendotze prozesuan oztoporik aurkitu gabe. Hain zuzen, IE baten kultura aurkitu ditugun printzipioak hezkuntza proiektuan gauzatu dezaketenak dira horiek.


**Ikastetxeko politiken ezaugarriez ari garenean, ikastetxeko funtzionamenduarekin, plangintzarekin eta egiturarekin zerikusia duten ezaugarriez ari gara. Horrek biltzen du antolakuntza sistema, erabakiak hartzeko prozesuak, parte-hartzeko erak eta rol ofizialek jarduteko duten erak, komunikatzeko erak, baliabideak eskuratzeko eta erabiltzeko erak, kalitate-estandarrak... Gainera, ikastetxeak inguruarekin eta tokiko komunitatearekin izan nahi dituen harremanak biltzen ditu ere.**

Politika hauen garapenak eta horiek kudeatzeko erak paper garrantzitsua izango dute edozein erakunde aldaketa eta eraldaketa prozesutan, horiek eremuak, baliabideak, motibazioa eta jasangarritasuna emango baitiete ikastetxean sartu nahi diren ekimen ezberdinei. Horregatik, ikastetxetako politiketan aldaketak sustatu nahi ditugunean, kontuan hartu beharreko<sup>6</sup> zeharkako hiru oinarri ditugu::

- **Autonomia:** gero eta autonomia handiagoa, orduan eta eskaintza berriei egokitzeko gaitasun handiagoa, murgilduta dauden pertsona guztien artean ardura handiagoa eta ekimen-gaitasun handiagoa. Horregatik, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonen artean, ezinbestekoa da ikastetxeko proiektuan eragina duten prozesu eta erabakien inguruan hausnarketa kritikoa egiteko gaitasuna sustatzea, eta pertsona horiek ekintzarako proposamen propioak lantzeko eta martxan jartzeko aukera sustatzea.

<sup>6</sup> BORJAS, Beatriz. «La gestión educativa al servicio de la innovación» Colección Programa Internacional de Educadores Populares. Federación Internacional de Fe y Alegría.

- **Parte-hartzea:** hezkuntza komunitateak hezkuntza proiektuaren sorreran nahiz burutzean parte hartu behar du. Parte-hartzeak jabetza sentimendua sortarazten du, eta horri esker, politika mailan definitzen den konpromisoa ahalbideratzen da. Honela, ikastetxe bereberko ikasleen eta hezkuntza komunitateko gainerako pertsonen arteko koordinaketarako eta parte-hartzerako eremuak eta aukerak sortu beharra daude, ikastetxeko proiektua birdefinitu eta garatu ahal izateko. Prozesu honek, halaber, etengabeko prestakuntzaren bidearekin konektatuta dago.
- **Prestakuntza:** etengabeko ikasketa-prozesua sortzea gaitasunen garapenerako, gaitasunen hobekuntzarako eta ideia berriak sortzeko, baita horiek berrizatzeko ere; horiei esker, gure Ikastetxea eralda daiteke eta hezkuntza eraldatzailerako bidean bultzada handia eman daiteke. Gaikuntzarako eremu iraunkorrak sortzea dakarrelarik, ikastetxeko hezkuntzaren jarduketaren, kulturaren eta politiken inguruan hausnarketa eta ebaluazioa posible egiten du (galdetu, ikertu, hitz egin, ulertu, hobetu, sistematizatu).



# 11 EZAUGARRIA:

## HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN CURRICULUMA

**DEFINIZIOA:** Curriculumaren, hezkuntzaren aldi bakoitzaren helburuen, metodologia didaktikoaren eta ebaluaziorako irizpideen inguruan gogoeta egiten duen, horiek berrikusten eta aldatzen dituen ikastetxea da, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen eduki, balore eta ikuspuntuaren arabera.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Irakasleak Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen ikuspuntuak eta edukiak curriculumarekin konektatzen ditu eta hari egokitzen dizkio, ikasgai bakoitzaren arabera, ikuspuntu integraltatik, diziplinarteko proiektuak sortze aldera.
- Curriculum zehaztaperen eremu ezberdinetan eta deboran zeharko gehikortasunean ikuspuntu eta eduki horien garapena bermatzen du.
- Baliabideak, materialak eta tresnak sortzen, hautatzen eta egokitzen ditu, HGHEren ikuspuntuak eta edukiak landu ahal izateko eta, honela, ikastetxe bakoitzeko irakaskuntza-ikaskuntzaren beharrei eta errealitateei erantzuteko.
- Curriculumuma bideratzen du, ikasleek enpatia, konpromisoa, parte-hartzea eta kontzientzia kritikoaren gaitasunak gara ditzaten, eta ongi komunera zuzendutako parte-hartze eta garapen sozialerako trebetasunak eskura ditzaten.
- Ikastetxeko hezkuntza jarduketaren eta politiken inguruan irakasleekin nahiz hezkuntza komunitateko aktore ezberdinekin parte-hartzea eta lana posible egiten du.





### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea ikastetxean osotasunean eta koherentziaz sustatu dadin, curriculumaren berrikuspena eta egokitzapena ezinbestekoak dira, irakaskuntza eta fase bakoitzaren barne HGHEren ikuspuntuak, edukiak eta metodologiak nola egituratzen diren ikusi ahal izateko.

Oinarri pedagogiko eta metodologikoetan jarduketaren ezaugarrien inguruan aurretik garatu duguna hezkuntzaren mamia bazen, orduan hezkuntza jarduketa horien euskarria curriculuma da, hau da, eskeletoa. Eta curriculum horren osagaiak hauexek dira: hezkuntzaren irakaskuntza eta fase bakoitzaren helburuak, gaitasunak, edukiak, metodologia didaktikoa, ebaluatu daitezkeen ikaskuntzen estandarrak eta ebaluaziorako irizpideak.

Elementu hauek kontuan hartuta, curriculumean HGHE barneratzen badugu, orduan ikastetxean lan egiteko HGHEk suspertzen dituen balore, helburu, eduki, gaitasun eta metodologiaren artean ezinbestekotzat jotzen ditugunak identifikatu ahalko ditugu, eta honela, curriculum ofizialean alderdi horien barneraketa planeatu eta egituratu ahalko dugu. Prozesu honetan, nahitaez, hezkuntza komunitateko agente eta kolektibo ezberdinek parte hartu behar dute eta, zentzu honetan, ikasleekin lana barneratu eta hura nola ebaluatu nahi dugun galdetu beharko diogu geure buruari.

Elkarren arteko menpekotasuna (globala), berdintasuna, hiritarren etika, ekonomia-aren eta ingurumenaren jasangarritasuna, giza eskubideen, generoaren, kultura-artekotasunaren, parte-hartzearen ikuspegia, eta abarreko HGHEren ikuspuntu eta edukiak barneratzen direnean, hezkuntza komunitateak birplan-teatuko du elementu horiek ikasgelan lantzeko materialen, baliabideen eta tresnen erabilera egokia. Horregatik erabiltzen diren materialak berrikusi beharko dituzte irakasleek, eta ikastetxe bakoitzaren errealitate eta beharrei egokitu beharko dituzte. Kontuan hartu beharreko zenbait alderdi ditugu:

- testuinguru ezberdinei eta harekin lan egiten duten pertsona ezberdinei egokitzapena,
- kalitatezko denbora izatea, aurkitzen duten guztia hautatzeko, sailkatzeko eta errealitateei sistematikoki egokitzeko, eta
- materialak antolakuntzen barne aroen, adinen eta gaien arabera sistematizatzea, antolatzea eta sailkatzea: baliabide-banku bat izatea, non irakasleak klasean egiten duena «gora-kargatu» dezakeen, gainerakoekin partekatuzko.

Bestalde, irakasleek eta bestelako hezkuntza erakundeek material berriak landu beharko lituzkete, horiek ikastetxe bakoitzeko errealitate eta beharrei egokitzeko, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera kritikoa bultzatzeko (webguneak, sare sozialak, bideoak, irratia, IKT eta/edo irakasleen trebetasun digitala, etab.).




# 12 EZAUGARRIA:

## HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN AGERPENA DOKUMENTU ESTRATEGIKOETAN

**DEFINIZIOA:** Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen printzipioak, edukiak, baloreak eta ikuspegiak ikastetxeko identitate-, estrategia- eta eragiketa-dokumentuetan agerian islatzen dituen ikastetxea: erakundeak komunitatean aurkeztutako oharrak eta jakinarazpenak, tutoretzaren ekintza-plana, bizikidetasun planak, ikasgelako programazioak, besteak beste.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Estrategia- eta eragiketa-dokumentuetan HGHEn jatorria duten ikusmolde eta proposamenak barneratzen ditu, era koherentean eta osotasunean ikastetxeko eta hezkuntza proiektuko eremu guztietan hura sustatzeko.
- Hezkuntza komunitateko aktore ezberdinen artean elkarrizketa sustatzen du, bai inguruko errealitateei buruz, baita tokiko errealitatea eraldatzeko eta hobetzeko ekintzak sortzeko aukerei buruz ere.
- Ikastetxeko estrategia- eta eragiketa-dokumentuak hezkuntza komunitatearekin eraikitzen ditu.
- Gizartearen Eraldaketarako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzan irakasleentzat nahiz ikasleentzat eraldaketa eta prestakuntza lan proposamenak suspertzen eta biltzen ditu.







---

### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Ikastetxetako estrategia- eta identitate-dokumentuek erakunde bakoitzeko hezkuntza proiektua biltzen dute, hau da, bakoitzak hezkuntzaren eta bere helburuen inguruan duen ikuspuntua islatzen dute; honela, haren lan helburua bihurtuko da, hau da, familientzako, erakunde ezberdientzako eta hezkuntzako kanpo-erakundeentzako aurkezpen gutuna. HGHEren ageriko sarrerari eta bere printzipio, eduki eta baloreen sarrerari esker, ikastetxeak bere jarduketan proposamen hau sustatuko eta gauzatuko du, era koherentean, osotasunean, bai barnerantz baita kanporantz ere.

Ikastetxeko estrategia- eta eragiketa-dokumentu ofizialak berrikusi beharra daude, baita komunikazio- eta identitate-dokumentuak ere. Halaber, Herritar-tasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen arabera hezkuntza proiektua, estrategia-plangintza, tutoretza ekintza-plana, bizikidetasun planak eta ikasgelako programazioak berrikusi behar dira ere, hezkuntza horrek bultzatzen dituen ikuspuntuak, edukiak, helburuak eta baloreak ager daitezten.

Aldaketaren kudeaketan hezkuntza komunitateari dagozkion pertsona guztien konpromisoa eta parte-hartzea sortzeko, pertsona horiek dokumentu hauen sorreran eta ikastetxeko hezkuntza proiektuaren definizioan parte hartu beharra dute. Era berean, parte-hartzean eta eraldaketan eusten den kultura eta jarduketa bultzatzeko hausnarketarako topaguneak sortzea interesgarria da, bertan dokumentu horiek familiei eta erakundeei aurkezteko.



# 13 EZAUGARRIA:

## ANTOLAKUNTZA PARTE HARTZAILEA ETA INTEGRATZAILEA

**DEFINIZIOA:** Era partizipatiboan, horizontalean eta barneratzailean hezkuntza-proiektua landu duen ikastetxea. Oinarriko alderdietan (curriculumak, ikastetxeko estrategia-dokumentuak) parte hartzeko aukera ematen die hezkuntza-komunitateko partaide ezberdinei: ikasleak, irakasleak, AZLak eta familiak. Eskola tokiko errealitatearekin eta errealitate globalarekin lotuta dago, etengabeko komunikazio hurbila izateko kezka du, bai ikastetxean barne, baita kanporantz ere.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Ikastetxeko bizitzarako, hezkuntza proiekturako eta erakundeko politikentzako erabaki garrantzitsuak hartzeko mekanismoak aldi berean eta horizontalki ezartzen ditu, eta beraz, hezkuntza komunitatearen parte diren pertsona ezberdinen artean elkarriketarako, koordinaketarako eta parte-hartzeko eremuak eratzen ditu, honela HGHE sustatzen duen proiektu komuna lantzeko.
- Ikastetxeko egiturak eta eremuak birplanteatzen dira, pertsona, bere beharrak, interesak eta gaitasunak oinarritat hartzen dituen hezkuntza integrala bultzatzen dela bermatzeko. Gainera, ikastetxeko eremu eta estrategiek bizikidetasuna, errespetua, aniztasuna eta barneratzea bermatu behar dute, hots, justizia sozialarekin konpromisoa duten gaitasun globalak garatzeko eta hiritartasun ereduak eraikitzeko oinarriko baloreak direnak.
- Hezkuntzaren legeak ezartzen duenaz gain, parte-hartzeko era eta eremu berriak eraikitzen ditu, ikastetxea osatzen duten pertsonen beharrak ezarritako irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen errealitatearekin konektatzen laguntzeko.





---

### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Edozein erakundetako egiturak eta antolakuntza-sistema oinarritzekoak dira osotasunean eraldaketa prozesuen sorrera sustatzeko eta hiritartasunean jarduteko unean. Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzaileak herritartasuna eraikitzeke era zehatz bat dakar, ikastetxeko esperientzia propioan oinarrituta. Etengabe herritartasunean jardutea dakar horrek.

Ikastetxeko antolakuntzak parte-hartzea, barneratzailea izatea, horiek dira HGHE osotasunean eta era koherentean ezarri nahi duten ikastetxeen ezaugarrietariko bat. Prestakuntzako eta erabakiak hartzeko prozesuak hezkuntza komunitate osoa biltzen eta konprometitzen du, eta funtsezko alderdietariko bat bihurtzen da. Alde batetik, hezkuntza komunitateko pertsonen artean (zuzendariak, irakasleak, familiak, ikasleak) boterearen egitura eta harremanak aldatzen dituelako, botere partekaturantz hain zuzen; bestetik, ikastetxearen esperientzian oinarrituta herritartasuna eraikitzen delako, eta beraz, bertan herritartasun jarduketara jazotzen da.

Paradigma aldaketa garrantzitsua egiteaz ari gara, proposamen honek hauxe planteatzen baitu: hezkuntza komunitate osoa erabaki-hartzearen prozesu osoan murgilduta dago, parte hartzeko eremu orekatuei esker, eta ikastetxeko prozesu guztiak murgilduta daude, baita ikasgelan bertan egiten direnak ere.

Hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona guztien parte-hartzea sustatzen duen ikastetxearen egitura eta antolakuntza bultzatzeaz gain, ikastetxeak dituen eremuen inguruan pentsatu beharra dago ere (arkitektura, pintura, «informazioziorako» eremuak, webgunea, besteak beste), barneratzea eta parte-hartzea suspertze aldera.



# 14 EZAUGARRIA:

## ERNE BOTERE- ETA ARDURA-HARREMANEI

**DEFINIZIOA:** Hezkuntza prozesuetan subjektu eta taldeen artean gertatzen diren harremanak aztertzen dituen Ikastetxea, eta horiengan eragiten duena, indarkeria aurreikusteko eta ahalduntze, errespetu eta ardura jokaerak sustatzeko. Baliabideen banaketa orekatuagatik kezkatuta dagoelarik, horrek ere hezkuntza eremuen erabilera biltzen du.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Harremanetarako era berriak eraikitzen ditu, eta hezkuntza-erakundean barne boterean aritzeko eta erabakiak hartzeko era ezberdinak berrikusten dituelarik, bere helburua da guztien ona, pertsonaren ikusmen osoa eta giza duintasuna, lotura barneratzaile eta orekatuak eraiki ahal izateko.
- Topaketa, bizikidetasuna, elkarrizketarako eremuak eta besteengana irekitzea lantzen ditu, eta berdintasuna, solidaritatea, senidetasuna, ardura, harridura eta naturaren mirespena bezalako baloreak lantzen ditu ere.
- Ahalduntzea, errespetua eta zainketa jarrerak bultzatzeko eta sustatzeko hezkuntza prozesuak suspertzen ditu, eta indarkeria aurreikusten saiatzeko da.





---

### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Harremanetan sartzeko era berriak eraikitzeko, boterea erabiltzeko erak berrikusteko beharra nabarmentzen du HGHEk, genero desberdintasunak kontuan hartuta eta oinarritzat berdintasuna, barneratzea eta giza duintasuna hartuta.

Ikastetxeak ez daude munduko errealitatetik kanpo, hau da, badakite gertatzen ari den indarkeriaren hazkuntzaz (eskalak eta motak), individualismoaren hazkuntzaz, ustelkeriaren hazkuntzaz, «itxurakeriaren» eta «figuratzearen» gizarteaz, eskura dagoen guztia «menperatzen» saiatzeko den botereaz, «gero eta gehiago hobeto» kulturaz.

HGHEri esker ordezkoko kultura eraiki daiteke, non guztien ona, pertsonaren ikuspen osoa eta giza duintasuna ardatz nagusia diren, interes partikularren aurrean; bertan, boterea menpekotasun indibidualtzat hartu beharrean, errealitatea eraldatzeko gaitasuntzat hartzen da, guztien artean gizarte zuzenagoa eraikitzeko helburuarekin.

Berriz ere aurreko ezaugarria bueltatzen gara, hau da, ikastetxearen antolakuntza eta egiturari buruz geure buruari galdetuko diogu. Eta honek ezartzen diren zainketa, errespetu eta botere-harremanekin zerikusi handia du.



# 15 EZAUGARRIA:

## INGURUAREKIN LANA, SAREAN

**DEFINIZIOA:** Inguruari irekita dagoen ikastetxea da; bertan justizia sozialaren aldeko prozesu eraldatzaileak sustatzen dira eta horietan elkarte, erakunde eta inguruko beste ikastetxe ezberdinek parte hartzen dute. Halaber, saretan parte hartzen du, bai ideiak, esperientziak, ikasketak eta baliabideak trukatzeko, baita baterako ekintzak burutzeko ere, adibidez, justizia globalarekin eta berdintasunarekin konprometita dauden agente ezberdinekin eragin eta ikasketa ekintzak.

### SAKONTZEKO ZENBAIT AZTARNA:

- Inguruarekin lanean aritzen da eta beste ikastetxe eta hezitzaileekin sareetan parte hartzen du, esperientziak eta ikaskuntzak partekatzeko eta sozializatzeko.
- Proposamen komunak eraikitzeko eta hezkuntza jarduketa aberasteko hezkuntza testuingurua inguruko beste erakunde eta antolakuntzei irekitzen dielarik, horrek ikastetxe irekia, erreferentziazkoa sortzen du.
- Ikastetxeak sortzen dituen proposamenek herritartasun globalaren eraikuntzari eta gizartearen eraldaketari ekarpena egiten dieten aztertzen du.





### EZAUGARRIAREN AZALPENA:

Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea bere hezkuntza proiektuan sartzen duen ikastetxe batek bere inguruari irekita egon behar du, ikastetxeko hormatik haratago joateko gai izan behar du, eta ingurua barnean sartzeko erraztasunak ezarri behar ditu. Ikastetxea eraldatzailea da bere jarduketan, eta herritartasun globalean hazten

du.

Sareetan parte hartzea sustatzen du, bai ideiak, esperientziak, ikaskuntzak eta baliabideak trukatzeko, baita eraginezko eta eraldaketarako hezkuntza ekintza komunak burutzeko ere. Ikaskuntza-zerbitzua, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza eta boluntariora bezalako jarduera berriztatzaileak bultzatzen ditu.

Komunitatearekin lana, errealitate zehatzaren ezagutzan oinarrituta, herritartasun globalerako ikastetxe eraldatzailearentzat funtsezkoa da, honela esperientziazko harremanak eta ekintza-eremuak eraikitzen direlako.

Inguruko beste erakundeei hezkuntza testuingurua irekitzen zaienean, ezinbestekoa da hezkuntza proposamen komunak sortzea; horiei esker, haurren eta nerabeen, familien eta erakundeen hezkuntzan aritzen diren antolakuntzek ikastetxean sartzeko aukera izango dute, horiek hezkuntza jarduerari eta erreferentziako ikastetxe irekiari ekarpenak egin ahal baitizkiete. Adibidez, garrantzitsua da belaunaldien arteko proiektuen bidez ikastetxeko jardueratan familiek parte hartzea.



# 3 ATALA: IKASTETXE ERALDATZAILEAREN BIDEAN AURRERA EGITEKO PAUSOAK

«Gatazkak borobil baten antza du, edozein unetan has daiteke baina ez dago amaitzerik.»

Marcos Azpikomandantea (Viejo Antonioren hitzetan<sup>7</sup>).

Aurreko atalean, Ikastetxe Eraldatzaile baten (IE) ezaugarriak azaldu ditugu. Hura gure norakoa delarik, aurrera egiteko pausoak emateko indarra emango digu. (Galeano 1989)

Ibilbide honetan orientazioa izateko, bidaia honetan laguntza jasotzeko, bide orri zehatza proposatzen dizuegu. Ikastetxe bakoitzarentzat bidea ezberdina delako, eta beraz bakoitzak bere bidea diseinatu behar duelako, gehien interesatzen zaizkion etapatan aurrera egiteko. Etapa bakoitzerako jomuga zehatzak planteatu daitezke, baina helburua beti berbera izango da: Herritartasun Globalerako Ikastetxe Eraldatzailearen bidean aurrera egitea. Proposamen metodologiko malgua egingo dugu, ikastetxe bakoitzak bere prozesua, hau da, «bere bide orria» diseinatu dezan, bere errealitate zehatzari egokituta.


IEen ezaugarrietan aurrera egiteko bidea, nonbait, ziklikoa da; hasieran aurrera egiteko gaiaren egoerari buruz nolabaiteko diagnostikoa beharrezkoa da, eta ondoren, lortu nahi den aldaketaren plangintza burutu beharko da. Hurrengo pausoan plangintza hori praktikan jarriko da eta, azkenik, prozesua baloratuko da, ikaskuntzak eskuratuko dira eta egoera berria aztertu beharko da (gai horrekiko nahiz beste batzuekiko). Baina ez da biribil itxia, behin eta berriz errepikatzen dena; aldiz, malguki edo espiral baten forma du, eta beraz puntu jakin batetik pasatzerakoan (diagnostikoa, plangintza, esku-hartzea, ebaluazioa) dagoen egoera eta azken aldiz bertatik pasatu ginenean zuen egoera alderatzen baditugu, hurrengo pausoan gaudela ikusiko dugu, aurrerapen ugari erdietsi direlako.

7 Relatos del Viejo Antonio. Subcomandante Marcos. CIACH. 1998. [http://enriquedussel.com/txt/Textos\\_200\\_Obras/PyF\\_revolucionarios\\_marxistas/Relatos\\_viejo\\_Antonio-Sub\\_Marcos.pdf](http://enriquedussel.com/txt/Textos_200_Obras/PyF_revolucionarios_marxistas/Relatos_viejo_Antonio-Sub_Marcos.pdf)





# IKASTETXE ERALDATZAILEAREN BIDEAN AURRERA EGITEKO PAUSOAK



Ikus daitekeen bezala, IEen ezaugarrietan aurrera egiteko prozesuak pauso ezberdinak ditu, eta pauso horiek beti ordena berdinean ematen ez diren arren, hemen jarraikako prozesutzat jotzen azaltzen dugu. Prozesu hau edozein unetan has daiteke eta ez du amaierarik. Hauetariko edozein unetan, puntuala nahiz jarraikakoa, ametsetan has gaitzke, indibidualki edo kolektiboki; eta orduan hezkuntza komunitateko beste pertsonak motibatuko eta liluratuko ditugu. Esan bezala, beste uneren batean zer fasetan gauden aurkituko dugu, diagnostikoa egina. Aurreko bi pausoen arabera, ekintza-plan bat diseinatuko dugu. Horretan, nora heldu nahi dugun eta/edo nondik pasatu nahi dugun, eta abar zehaztuko da. Eta martxan jartzeko unea helduko da: plana burutu eta jarraipena egin, prozesuaren ikaskuntzak erazteko esperientzia sistematizatzeko, edozer gertatzen bada ere. Erdietsitakoa ebaluatu eta detektatuko da informazio honekin. Kontraste eta ebaluazio hau diagnostiko berriztat erabiliko dira, noraino heldu garen ikusteko eta ezarri beharreko plan berria diseinatzeko... baina lehenik, bizi izandako esperientzia, komunikatutakoa eta aurrera egindakoa ospatu beharko dugu, besteak beste, liluratzen jarraitzeko. Beraz zikloa errepikatuko da, baina aurreikusitako ezaugarrietan eta bestelako ezustekoetan aurrera egin eta gero.


## 3.1. AMETS EGITEN HASIKO GARA. LILURATZEN ETA MOTIBATZEN DU

Gero eta eraldatzaileagoa den ikastetxe hau erdiesteko prozesuan, aurretiko premisa garrantzitsua nabarmendu beharra dago: hezkuntza komunitatearen motibazioa eta sentsibilizazioa, bere osotasunean. Guztiakin jarraitzen den ametsa partekatu beharra dago. Ahalik eta pertsona gehien murgildu behar ditugu prozesu honetan: irakasleak, familiak, ikasleak, AZLak, etab. Nori ez zaio ba gertatu, bidaia bat egin nahi izatea, lagun bati kontatzea, lagun hori ere gurekin bidaian etortzea eta azkenik, taldeko prezio berezia jaso izana? Ba, esan bezala, IEren bidean aurrera egiteko, gero eta gehiago bagara, hobeto. Baina gogo handiak dituen talde txiki batekin ibilbideari ekin diezaiokegu ere (bizpahiru lagun adibidez). **Gurekin lagun gehiago izateko liluratu eta motibatu behar ditugu**; bidaia bat egin nahi dugunean hari buruz mintzatzen garen bezala, bisitatu nahi ditugun tokien edo egin nahi ditugun gauzen argazkiak erakusten ditugun bezala, orain IE zer den kontatzen hasiko gara, hau da, zer ezaugarri dituen, zer helburu ditugun... honela lagun gehiago bilduko ditugu eta elkarrekin amets egingo dugu.

Hezkuntza komunitate guztiak parte hartzen badu, bikain; baina irakasle edo zuzendari batzuekin has gaitzke ere, **talde gidari** bat osatuta (hau da, prozesua bultzatzen duen taldea). IEren bidean erdiesten ditugun aurrerapenei esker, ziurrenik hurrengo bidaiarako lagun gehiago etorriko dira.

Pauso honetarako, honako amets **kolektiboa eraikitze**ko dinamika proposatzen dugu:





Eremu publikoa da, non hezkuntza komunitate osoa sar daitekeen. Kartel txuri handi bat jarriko dugu bertan, eta mezu motibatzailea idatziko dugu, adibidez: **Mundu Hoberako Hezi: Nolakoa Da Gure Ametsetako Ikastetxea? Idatzi Zeure Ideiak.**

Bestela, zenbait kartel presta ditzakegu, eta toki ezberdinetan jarri (irakasleen gelan, jolastokian...), nori zuzenduta dauden arabera. Horrela ekarpenak bereizi ditzakegu. Galdera orokorra izan daiteke, edo adibidez, gure ametsetan kolektibo bakoitzarentzat zer nahi dugun (ikus iradokitako eredia, **1 tresna**).

Ideiak, aholkuak, ametsak biltzeko beste era bat izan daiteke **galdetegi online anonimo** bat prestatzea, klaustro osoari, Guraso Elkarteari eta gai-nontzekoei bidaltzeko.

Informazio honekin guztiarekin dokumentu edo kartel txiki bat presta dezakegu, eta hezkuntza komunitateari bueltatzeko jakinarazpen bat igor diezaiokegu (erantzuteko formatua erabaki beharko dugu).

## 3.2. ZEIN UNETAN GAUDE ORAIN? 3.2.1. DIAGNOSTIKOA

Gure helburua da Ikastetxe Eraldatzaile bihurtzea, eta identifikatu ditugun hamabost ezaugarriek hori lortzen lagunduko gaituzte. Horietariko ezaugarri batzuen inguruan dagoeneko lanean ari gara, trinkotasun handiagoz edo txikiagoz, puntualki jarduerari loturik nahiz zeharka. Beste ezaugarriari dagokienez, ez ditugula uste dugu, edo ez dakigu gure ikastetxean zein neurritan sartu diren.

Beraz, lehenik non gauden begiratu behar dugu. Gure ikastetxeko bizitzan zer ezaugarri ezarrita dauden eta zein neurritan ezarrita dauden, nola ezarri diren edo ez, hori detektatzea da kontua hain zuzen.



Horretarako bi aukera ditugu:

## BEGIRADA BIZKORRA

Herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailean ikastetxearen bidean aurrera egiteko dagoeneko egin duguna eta eskutan zer dugun identifikatzea da kontua.

### Dinamika:

Prozesuaren sustatzaile den talde gidari batek egin dezake, edo bestela, hezkuntza komunitate osoaren ordezkariak egin dezakete.

DIN A3 tamainako paper bat hartuko dugu eta horizontalki kokatuta, ezkerretik eskuinera marra bat marraztuko dugu paperaren erdian. Tamaina ertaineko eta kolore ezberdineko post-it batzuk hartuko ditugu, bertan ideiak idazteko eta gure DIN A3 paperean itsasteko. Prozesuaren partaideen artean banatuko ditugu, honako galdera hauei erantzun eman diezaieten:

- Kolore bateko txartelak: Ikastetxean herritartasun globalerako hezkuntza ezartzeko bidean aurrera egiteko, zer elementu (errazagoa bada, jardueraz mintza gaitezke) uste duzu oinarritzkoak direla (epealdi jakin bat adieraziko dugu, adibidez azken ikasturtea, azken hiru ikasturteak...)? Txartelak marraren gainean itsatsiko dira, kronologikoki. Jarduera batzuk denboran zehar mantentzen badira, adibidez, solidaritetearen jardunaldi bat, orduan zenbait fitxatan jar daiteke, egin zen lehenengotik nabarmengarria izan zen beste batera edo egindako azkenekora, horien garapena neurtu ahal izateko.

- Kolore bateko txartelak: Hauetariko elementu bakoitzerako, zer eragin/aldaketa sortu dira dagoeneko, I Eren ezaugarriei dagokienez? Txartelak aurretik identifikatutako elementu (txartel) bakoitzaren inguruan itsatsiko dira.

**Partekatu:** Agertu diren ezaugarrien inguruko hausnarketa, eta horiek ikastetxean dirauten ala ez; ba al dago agertu ez den ezaugarririk eta geure ikastetxean ezarrita dagoenik, baita hasiberria bada ere (ezaugarri hauek beste koloreko txarteletan idatzi)? Zer harreman dute ezaugarri hauek, partekatutako ametsaren dokumentuan ezarritakoarekin («Amets egiten hasiko gara» pausoa eman bada)?

Egindako lana gordetzeko DIN A3-ari argazki bat egingo diogu.

## BEGIRADA LASAIA

Hoberena da auto-diagnostiko lana egitea, non hezkuntza komunitateko gehienek parte hartuko duten, bere osotasunean ikastetxearen ikuspegia planteatzeko.



## Dinamika:

a) **Ezaugarriak hautatu:** Aztertu nahi ditugun ezaugarriak hautatuko ditugu, herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzaile baten helburuan ikastetxeko kulturaren ezaugarriak ezinbestekoak direla jakinda. Ikastetxeko kulturaren ezaugarri hauek ezin ditugu inola ere ahaztu gainerako ezaugarrien inguruan lanean ari garenean. Interesgarria da hiru blokeetan arreta jartzea, gure ikastetxeari buruz ikuspegi zabala izateko.

b) **Agenteak identifikatu:** Garrantzitsua da prozesuan norke parte hartuko duen identifikatzea. Hezkuntza komunitateko kolektibo ezberdinetako pertsonekin (familiak, ikasleak, irakasleak, AZLak) talde bat osa daiteke; bestela, irakasleek osatutako taldea izan daiteke, edo zuzendariek osatutako talde bat, edo Guraso Elkarrekin (GE) osatutakoa. Ikastetxe bakoitzean ezberdina izango da, bere errealitate zehatzaren arabera. Benetan garrantzizkoa da hezkuntza komunitate osotik informazioa eskuratzea, behintzat posible bada, talde ezberdin bakoitzetik datorren informazioa aberasgarria eta batzutan osagarria izan daitekeelako

c) **Informazioa jaso:** Landu nahi ditugun ezaugarriak identifikatu ditugunean eta taldeak osatu ditugunean, bildu nahi dugun informazioa planteatuko dugu, baita hura nola bildu ere. Horretarako, galdera erreflexibo sorta planteatuko dugu (ikus Ezaugarriaren araberrako Sormenezko Galderak, **2 tresna**): Galderak prest ditugunean, erantzunak bilatu behar ditugu. Horretarako, hezkuntza komunitateko talde batzuen artean galdetegiak banatu ditzakegu, edo eztabaida taldeak antolatu ditzakegu, adibidez (betiere idatziz edo argazkietan erregistratuko dugu).

d) **Informazioa aztertu:** Galderen erantzunak jaso ditugunean, talde batek (prozesuaren talde gidaria izan daiteke) informazio hori aztertuko du: Zein dira ezaugarriak indartsuenak?, zein dira aurkitutako ahultasun nagusiak?, hezkuntza komunitateko talde ezberdinen artean iritzi ezberdinik al dago?, Zergatik ezberdintasun horiek?, Ba al dago aztertu nahi ez genuen baina auto-diagnostikoan zehar behin eta berriz agertu den ezaugarriak?, daukagun informazioa, lan biderapen zehatzetarantz eramaten al gaituzte dagoeneko? Azterketa hau dokumentu batean islatuko dugu eta auto-diagnostiko prozesuan era ezberdinean parte hartu duten talde guztiekin partekatuko dugu. Halaber, hezkuntza komunitate osoarekin partekatu daiteke (informazio-gutuna).



## 3.3. NORA HELDU NAHI DUGU? EKINTZA-PLANA DISEINATU

Orain nora heldu nahi dugun erabaki behar dugu. Horretarako, gure ametsa zein den ezagutzea oso garrantzitsua da, baita ikastetxea zein unetan gauden jakitea ere. Ezaugarri guztiak erlazionatuta daude; ikastetxean aldaketak egiteko orduan edo HGHE indartzeko orduan, ezaugarri bati lehentasuna eman ahal zaio eta bertatik hura beste batzuekin lotu, ikastetxeko kulturari, bere jarduketari eta politikei dagozkienak. Hain zuzen ere, herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailearen bidean aurrera egiteko ezinbestekoak dira ikastetxeko kulturaren ezaugarriak, eta beraz lehentasuna izan behar dute erabakitzeo unean. Diagnostikoa bertan jasotako datuetan oinarritzea gomendatzen da. Ikastetxeari gehien interesatzen zaizkion ezaugarriak, ezaugarri ahulenak, hezkuntza komunitatearentzat erakargarrientzat jotzen ditugunak, edo epe laburrean aldaketak ekarriko dituztenak hauta ditzakegu (jarraitzeko animatuko baitute).

Indartu nahi ditugun ezaugarriak hautatu ditugunean, gure ikastetxearen bidaiarako plangintza (ekintza-plana) diseinatuko dugu eta ibilbiderako motxila prestatuko dugu, hautatu dugun jomugara heltzeko. Plan honek errealista izan behar du, eta zuzenduko duten pertsonen (behintzat talde gidariaren) konpromisoa izan behar du ere.

Ibilbide hau egiteko geure motxilan estrategia ezberdinak beharko ditugu. Estrategia bakoitzak ekintza ezberdinak izan ditzake, hautatutako ezaugarria indartzeko. Horietariko batzuk aipatuko ditugu orain:



- **Prestakuntza,** gaitasunak garatzen, trebetasunak hobetzen eta ideia berriak sortzen (hezkuntza berriztapena) laguntzen gaituen estrategia da, geure ikastetxea eraldatze eta herritartasun globalerako bultzada sortze aldera.

Lantzen ari garen ezaugarriari loturik egongo da prestakuntza. Adibidez, plangintza partizipatiboan prestakuntza, errealitatearen azterketan prestakuntza, ikasle eta irakasleen egunerokotasuna eta arazo globalak lotzean prestakuntza, ebaluazioan prestakuntza...

Hezkuntza esperientziak trukatzea aparteko aukera da ikaskuntzak partekatzeo; horrexegatik garrantzitsua da horiek prestakuntza planetan sartzea


- Ezaugarriak garatzeko egokiak diren **materialak eta baliabideak hornitzea** (dauden materialak berrikusita eta egokituta nahiz ikastetxeko beharrei egokitutako material berriak landuta, materialak eskuratuta...). Posible izanez gero, informazio eta komunikazioen teknologien erabilera lanean barneratuko ditugu (webguneak, sare sozialak, IKT...).

- **Elkarrizketarako eta koordinaketarako eremuak sortu.** Elkartzeko eremuak eta uneak behar ditugu, aldaketarako proposamen hauek landu ahal izateko. Proposamen horiek hezkuntza maila eta/edo sail ezberdinetako irakasleen artean, irakasle eta zuzendarien artean, ikasle eta irakasleen artean, irakasle eta hezkuntza komunitatearen artean, eta abarrekoen artean partekatzeko eta koordinatzeko.

Erabakiak hartzeko eredu berria sortzeko parte-hartze eremuak ezartzean datza..

#### Dinamika:

Talde gidariak eta, ahal bada, hezkuntza komunitateko aktore ezberdinen ordezkariak, ekintza-plana diseinatuko dute (bilera batean edo gehiagotan). Ekintza-plan honetarako fitxa bat aholkatzen dugu, non honako elementuak azaltzen ditugun: abiapuntua, nora heldu nahi dugun, gure ibilbidearen lorpenak zeintzuk diren, zein den talde gidaria eta zein unetan egingo dugun (beharrezkotzat jotzen bada, hori egiteko ditugun baliabideak jar daitezke ere). Ezaugarri bakoitzeko fitxa bat diseina daiteke; bestela, ibilbideak aldi berean zenbait ezaugarri lantzea posible egiten badu, horietariko zenbait biltzen dituen fitxa diseina daiteke ere. (Ikus ekintza-planaren fitxa, [3 tresna](#)).



Hurrengo orrialdean Ekintza-Planaren adibide bat aurki daiteke:





EREMUAK	EZAUGARRI ERALDATZAILEA	ABIAPUNTUA	NORA HELDU NAHI DA
<p><b>IKASTETXEKO PRINTZIOPI, IKUSPEGI ETA BALOREEI BURUZ.</b></p>	<p><b>2 EZAUGARRIA: GENERO BERTINTASUNA ETA HEZKIDETZA.</b></p> <p>Baterako hezkuntzaren eta genero berdintasunaren alde apustu egiten duen ikastetxea; horiek bere ekintza eta egituratan hautematen direlarik, bertan diren ezberdintasunak agerian uzten ditu eta horiek ezabatzeke konpromisoa hartzen du. Indarkeria matxistaren aurreikuspena biltzen du, baita ageriko curriculumean nahiz curriculum ezkutuan den errealitatearen azterketa kritikoa ere. Tokiko testuinguruan eta testuinguru globalean berdintasunaren alde aritzen da, bereziki eremu politikokoan eta hezkuntzaren eremuan, erakundean barne.</p>	<p>Azken urteotan, klaustroek genero ikuspegiari eta hezkidetzari buruzko prestakuntza jaso dute. Martxoaren 8an eta azaroaren 25ean horiek opatzen dira, baina ikastetxeke curriculum ezkutuari buruz ez da inoiz hausnarketarik egin, ezta biolazio matxisten aurreikuspenari buruzko gogoetarik ere.</p>	<p>Emakume eta gizonen arteko berdintasunak eta orekak ikastetxeke balioa izan behar dute, eta hezkuntza komunitate osoak sentitu eta hauteman behar du hori (etorkizunean, ikastetxeke identitate balio bat izan beharko luke, auzoko nahiz udaleko beste ikastetxeekiko identifikatzen duena).</p>
<p><b>GINARRI PEDAGOGIKOEI ETA METODOLOGIA ERALDATZAILEEI BURUZ</b></p>	<p><b>8 EZAUGARRIA: METODOLOGIA KRITIKOAK, ERREFLEXIBOAK ETA KOLABORATIBOAK.</b></p> <p>Globalki eta lokalki eragiten gaituzten arazo nagusiak, eta bien artean dauden harremanak ulertzea, hori da ikastetxe honek duen helburua. Ikuspuntu kritikotik egiten du hori, hau da, giza eskubideetan eta genero berdintasunean oinarrituta. Iritzien trukaketa, hausnarketen alderaketa eta azterketa kritiko kolektiboa partekatzea posible egiten duten metodologia kolaboratiboak sustatzen ditu.</p>	<p>Aurrerako pausoak eman dira, baina oraindik tokiko gauzen eta gauza globalean lotura egitea zaila da; halaber, ikaskuntzak oraindik ez ditu arazo zehatzak aztertzen eta errealitatearen eraldaketa-prozesuak sortzen. Proiektuetan oinarritutako Ikaskuntza-esperientziak burutu dira zenbait ikasgelatan; horiek ikaskuntza kritikoa suspertzen dute.</p>	<p>Ikaskuntza kritikoa bultzatzen duten metodologia eraldatzaileen erabilera aurrera egin behar du ikastetxeak.</p>
<p><b>IKASTETXEAREN PLANGINTZA ETA ANTOLAKETARI BURUZ</b></p>	<p><b>12 EZAUGARRIA: HGHE DOKUMENTU ESTRATEGIKOETAN AGERI DA.</b></p> <p>Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen printzipioak, edukiak, baloreak eta ikuspegiak ikastetxeke identitate-, estrategia- eta eragiketa-dokumentuetan agerian islatzen dituen ikastetxea: erakundeak komunitatean aurkeztutako oharrak eta jakinarazpenak, tutoretzaren ekintza-plana, bizikidetasun planak, ikasgelako programazioak, besteak beste.</p>	<p>Ikastetxeke estrategia-planean herritartasun globalerako hezkuntza aipatzen da, baina puntualki, eta ez da zeharka aipatzen.</p>	<p>Ikastetxeke estrategia-dokumentuek herritartasun globalerako hezkuntza zeharka eta agerian aipatu behar dute (ikasturte honetan Bizikidetasun Planarekin hasi).</p>





LORPENAK	IBILBIDEA EGITEKO ESTRATEGIAK / EKINTZAK	TALDE GIDARIA (ARDURADUNAK)	BURUTZEKO EPEALDIA
Ikastetxeko hizkuntza barneratzailea (ahozko, idatzizko jakinarazpenetan, irudi grafikoetan, karteletan...).	Generoari buruz prestakuntza klaustroarentzat, ikasleentzat eta familientzat (prestakuntza honek hizkuntza barneratzailea jorratuko du).	Ikastetxeko Eskola Kontseiluak antolatzen du (GGKEekin batera).	Ikasturteko 1. hiruhilabetekoa.
	Ikastetxeko dokumentu, kartel eta jakinarazpen guztiak berrikusi, hizkuntza barneratzailea erabiltzeko.	Ikastetxeko Herritartasun Globalerako taldea ikasleekin batera, ikastetxeko irudiak aztertzeko eta horiek aldatzeko. Zuzendariak dokumentu ofizialentzako eta ahozko eta idatzizko kanpo-jakinarazpenentzako.	Ikasturteko 2. hiruhilabetekoa, berrikuspena. Ikasturteko 3. hiruhilabetekoa. Ekainean, lortutakoaren ebaluazioa.
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta orekaren aldeko ikastetxearen eragina (g Ezaugarriari lotuta).	Aktore lokalekin edo estatu mailako aktoreekin eta/edo aktore globalekin koordinaketa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta orekaren aldeko eragin-ekintzaren batean ikastetxeak parte har dezan.	Irakasleen boluntario taldea.	Azaroaren 25erako eta/edo martxoaren 8rako.
Proiektu Eraldatzaileen bidez Ikaskuntza estrategiaren ezarpena; hiruhileko batean zehar InteRed-ek ikasgela batean (lehen hezkuntzako 5. maila) burutu du.	Proiektu Eraldatzaileen bidez Ikaskuntzari (PEI) buruzko prestakuntza.	Lehen hezkuntzako 5. mailako irakasleak. Ikasketaburua (GGKEekin batera).	Ikasturteko 1. hiruhilabetekoa.
	PEI ezarri (emakumeen eskubideekin zerikusia duen proiektu bat lantzeko aukera, honela ikastetxeko baloreetan genero berdintasunaren ezaugarria sendotzeko prozesuarekin lotu).		Ikasturteko 2. hiruhilabetekoa.
Bizikidetasun Planak herritartasun globalerako ikastetxe eraldatzaile baten ikuspuntuak/ baloreak biltzen ditu, bereziki generoaren ikuspuntuari dagokionean (eta indarkeriaren aurreikuspena biltzen du ere).	Generoari buruz eta indarkeriaren aurreikuspenari buruz klaustroarentzat, ikasleentzat eta familientzat prestakuntza (2 ezaugarriarako aipatutako prestakuntzarekin komuna).	Hezkuntza komunitateko aktore ezberdinen ordezkariekin lantalde baten eraketa (GGKEekin batera).	Ikasturteko 1. hiruhilabetekoa.
	Egungo bizikidetasun planaren analisisa, ikastetxeko bizikidetasunaren diagnostikoa eta Bizikidetasun Plan berriaren eraketa, herritartasun globalerako ikastetxe eraldatzaile baten kulturaren baloreak biltzen dituena.		Ikasturteko 2. hiruhilabetekoa.



## 3.4. AURRERA! BURUTZEA ETA JARRAIPENA




Geure Ekintza-plana dugula (edo gure erkaketarekin jarraituz, bidaia-plana), besterik gabe aurrera jarraitu behar dugu, hau da, diseinatu dugun plangintza praktikan jarri behar dugu. Talde gidaria eta/edo ekintza bakoitzaren arduradunak dira bidaiaren betearazpena bultzatu behar dutenak.

Gure prozesua gauzatzen dugun bitartean, nabigazio-egunkaria edo koaderno batekin beharko dugu, egindako plangintzaren jarraipena egiteko. Jarraipen hau egiteko, batzar edo talde bat eratzeko gomendatzen dugu. Prozesua zuzentzen duen talde gidaria izan daiteke, edo bestela, talde berri bat eratzeko aukera dugu, informazioa pilotzeko ardura hartuko duena. Talde honetan hezkuntza komunitateko aktore ezberdinek parte hartzen badugu, aberasgarriagoa izango da: irakasleak, zuzendariak, ikasleak, familiak, irakasleak ez diren langileak...

Egindakoa baloratzeko talde hau noizean behin bilduko delarik, zenbatero ikastetxeak berak erabakiko du. Guk hamabost egunero biltzea gomendatzen dugu, baina taldearen errealitatearen arabera egokitu beharko da. Dena-dela, garrantzitsua da edozein prozesutan zuzendariak parte hartzea edo, behintzat, harremana arina izatea, sor daitezkeen gorabehereri erantzun eman ahal izateko. «Bidaiaren Egunkaria» egiten badugu, informazioa ordenatuta izango dugu eta ondoren hezkuntza komunitatearekin partekatzea errazagoa izango da.

Planteatutako ekintza ezberdinen etengabeko jarraipenari esker, ongi ateratzen ari dena eta hobetu behar duguna errazago detektatuko dugu; gainera, geure bidaiari ager litezkeen aldaketei eta arazoei aurre egitea errazagoa izango da.

### Dinamika:



Planeatutako ekintzen jarraipenerako orri bakoitzarekin gure Bidaiaren Egunkaria idatziko dugu. Ekintzak burutzen diren heinean informazio hau biltzen dela ziurtatu beharko du jarraipena egin behar duen taldeak. Bidaiaren Egunkariaren orri gisa honako fitxa proposatzen dugu (4 tresna); fitxa hau halaxe erabil daiteke, edo ikastetxeko behar zehatzei egokitu ahal zaie. Egindakoari buruz ebaluazio laburra egitea garrantzitsua da.

# 3.5 NORA HELDU GARA? ZER LORTU DUGU? KONTRASTEAK ETA EBALUAZIOA

Ekintza-plana burutzeaz amaitu dugunean, eta jarraipenean bildutako informazioa kontuan hartuta, garrantzitsua da lortutako erdiesten azterzea eta sendotzen jarraitu behar ditugun elementuak azterzea. Horrek prozesu berriari hasiera emango dio, hau da, aro berri bati ekingo diogu. Ikastetxe Eraldatzaileen helbururantz aurrera egiten jarraitzeko.

Kontraste eta ebaluazio honetarako bi aukera proposatzen ditugu:



## BEGIRADA BIZKORRA.

Ekintza-planaren jarraipenean eskuratutako dokumentazioan oinarritzen da azterketa.

### Dinamika:

Talde gidariak (jarraipenerako taldearekin batera, hura eratu balitz)  
Bidaia Egunkaria (jarraipenerako eta etengabeko ebaluaziorako fitxak)  
berrikusiko du, egindako guztiari buruz informazioa duela egiaztatzeko.  
Zerbait falta bada, dagokion ekintzaren fitxan hura adieraziko da.  
Ondoren, ikastetxe eraldatzaileen bidean aurrera egindakoari buruz  
ondorioak aterako ditugu: ikaskuntzak eta aldaketak. Bilera bakar batean  
edo gehiagotan egin daiteke.

## BEGIRADA LASAIA.

Bizi izandako prozesua berreraikitzean oinarritzen da azterketa.

### Dinamika:

Hezkuntza komunitate osoak ordezkaturik egon behar du, nahiz eta talde gidariak bizi izandakoaren sistematizazioa zuzendu. Garatu dugun lan-ibilbide hau biltzen duen Denbora Lerroa eratzea proposatzen dugu. Era grafikoan, ibilbideko erdiesten nagusiak, ikaskuntza nagusiak eta abar ikusi ahalgo ditugu (ikus Denbora lerroa, **5 tresna**).

Informazioa ordenatuta dugunean, Ikastetxe Eraldatzaileen bidean emandako aurrerako pausoei buruz ikaskuntza, gomendio eta ondorio sorta izango dugu eskutan eta, esan bezala, orduan aro berri baterantz ibiltzen ausartuko gara.



## 3.6. ETA OSPATZEN DUGU! IBILITAKO BIDEA JAKINARAZTEN DUGU, LILURATZEN JARRAITZEKO

Hezkuntza berriztapeneko prozesu mota hauen osaketa ikastetxearen bizitzan sekulako erdiespena da. Horregatik ospatu beharra dago. Egindako ibilbideaz arro gaude eta hezkuntza komunitate osoarekin nahiz gure inguruarekin, auzoarekin eta komunitatearekin partekatuko dugu. Bizi izandako momentuengatik parte hartu duten lagun guztiei eskerrak emateko unea da. Honela, Herritartasun Globalerako Ikastetxe Eraldatzailearen helburuetarantz aurrera egiten jarraitzeko indarrak berreskuratuko ditugu.


Orain amets honetan parte hartzeko lagun gehiago animatu behar ditugu. Ez dezagun ahaztu, beraz, egindako **lana jakinarazi eta zabaldu** behar dugula. Lantaldean edo parte hartu duten lagunaren artean ezin du geratu; gure topaketen, bileren, sare sozialen, zirkularren, ikastetxeko blogen eta abarrekoen bidez partekatzea eta sozializatzea ezinbestekoa da.

Ikastetxe bakoitzak erabakiko du nola ospatu nahi duen, baina interesgarria da nolabaiteko ospakizun edo sinboloa izatea, egindako lana laburtzeko. Ospakizun honi esker hezkuntza komunitatea bateratuko dugu, eta hurrengo bidaiarako partaide berriak izango ditugu.



# ERANTSIAK: ERREMINTA-KUTXA

Hausnarketa egiteko eta martxan jartzeko prozesu hau errazteko helburuarekin tresna sorta eskaintzen dizuegu, Herritartasun Globalerako Ikastetxe Eraldatzailearen bidean aurrera egin ahal izateko. Bidaia honi ekiteko erreferentzia dira.




## 1/

## AMETS KOLEKTIBOAREN ERAIKUNTZAREN HORMA-IRUDIA

EMundu hoberako hezi: «nolakoa da gure ametsetako ikastetxea?». Idatzi zeure ideiak			
Ikasleentzat	Irakasleentzat eta laguntzako langileentzat	Familientzat	Auzoarentzat/udalerrirerentzat non gaude



# 2/ IKASTETXE ERALDATZAILEEN EZAUGARRIAK BERRIKUSTEKO GALDERA ERREFLEXIBOAK



Hausnarketarako galdera zerrenda bat proposatzen dugu, Ikastetxe Eraldatzaileen ezaugarriekiko egoera zein den aztertzeko eta baloratzeko (baliagarriak izan daitezke ere hezkuntza eraldatzailean helburu berriak finkatzeko gida bezala).

Galdera hauek orientagarriak dira, hau da ikastetxe bakoitzak bere galderak landu ditzake, bere errealitate zehatzari eta interesei egokitzeko.

Galdera bakoitzari dagokion ezaugarriaren arabera taldekatu ditugu; dena-dela, horietariko batzuk ezaugarri bat baino gehiagori erantzun eman diezaioke.

## A) ANTOLAKUNTZAREN KULTURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GALDERAK, PRINTZIPIO, IKUSPEGI ETA BALOREEI BURUZKOAK

### 1 EZAUGARRIA: JUSTIZIA GLOBALA ETA GIZA ESKUBIDEAK

- Ikastetxean barne eta kanpo, ikasleek beren ikaskuntzetan justiziaren zentzu etiko eta politikoa garatzea sustatzen al da?
- Giza eskubideen eta justizia sozialaren ikuspuntutik proiektuak eta proposamenak planteatzen al dira, hau da, pertsona guztiak, munduko edozein tokitan badaude ere, giza eskubide berberak dituztelako sinesmenetik?
- Ikastetxean eraldaketa sozialerako ekintzak sustatzen al dira, ikuspuntu lokaletik eta globaletik?

### 2 EZAUGARRIA: GENERO BERDINTASUNA ETA HEZKIDETZA

- Emakumeen papera nabarmentzeko elementua delarik, generoaren hizkuntza barneratzailearen inguruan kezkarik al dago?
- Ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko eta hezkuntza komunitateko bizitzan parte hartzen duten gainerako pertsonen artean berdinen arteko harremanak sustatzen al ditu ikastetxeak?
- Ikastetxeak genero estereotipoak zalantzan jartzen dituzten gogoetak eta jarrerak sustatzen al ditu?

### 3 EZAUGARRIA: KULTURARTEKOTASUNA ETA BARNERATZEA

- Ikastetxeko egunerokotasunean, identitate etniko, erlijioso, linguistiko, sozial, gaitasun eta genero identitate ezberdinen aniztasuna ikasleek baloratzea suspertzen al da?
- Ikastetxeak hezkuntza komunitatearen aberastasunerako elementua, printzipioa dela, aniztasuna nabarmentzen al du (kultura, erlijioa, gaitasun-aniztasuna eta abar edozein badira ere), eta aukera berdintasuna sustatzen al du bai ikaskuntzan baita praktikan ere?
- Bere osakideen identitate anitzak onartzen al ditu, eta ikastetxean edo beste eremuetan (atsedenaldia, jolastokia...) parte-hartzeko dinamikak



sustatzen al ditu?

#### 4 EZAUGARRIA: PARTE HARTZEA

- Ikastetxeko eguneroko bizitzarekin zerikusia duten prozesuetan, zer punturaino sustatzen da ikasleen parte-hartzea?
- Ikastetxeak bere hezkuntza komunitatearekin eztabaida eta elkarri-zketarako eremuak eta dinamikak eratzen al ditu, hezkuntza-proiektua kolektiboki eraikitzeko?
- Ikastetxearen ikuspegi anitzak (gaitasunak, kultura, erlijioa, etnia...) biltzen al ditu eztabaidan eta elkarrizketan?

#### 5 EZAUGARRIA: GARAPEN JASANGARRIA

- Ikastetxeak ingurumenaren zainketaren konpromisorik erakusten al du, lokalki nahiz globalki?
- Garapen jasangarriaren alde ohituren aldaketarik bultzatzen du (elikagaien eta energiaren kontsumoa, material birziklatuen erabilera, aztarna ekologikoaren eragina, etab.)?
- Ikastetxeak azterketa kritikorik sustatzen du, gizakiaren bizitzaren inguruan eta planetan nahiz pertsonengan ekintza arduratsuen inguruan?

## B) OINARRI PEDAGOGIKOEN ETA METODOLOGIA ERALDATZAILEEN EZAUGARRIEKIN ZERIKUSIA DUTEN GALDERAK

#### 6 EZAUGARRIA: IKASKUNTZA SOZIOEMOZIONALA

- Ikastetxeak ikasleekin eta hezkuntza komunitatearekin pertsonaren dimentsio ezberdinen (kognitiboa, afektiboa, soziala, emozionala...) ikaskuntzak sustatzen al ditu?
- Ikastetxeak gaitasun sozio-afektiboen garapena sustatzen duen hezkuntza jarduerarik sustatzen al du, esate baterako, adimen emozionala, zainketak, gatazken ebazpena, etab.?
- Alderdi emozionalak sormenez garatzen dituen metodologiarik erabiltzen al da, adibidez, jokoan, antzerkigintzan edo artean oinarritzen direnak?

#### 7 EZAUGARRIA: ESPERIENTZIAZKO IKASKUNTZA ESANGURATSUA

- Ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako aktoreen esperientziak kontuan hartzen dituen curriculum edukiak garatzen al ditu ikastetxeak?
- Errealitate ezberdinetara hurbiltzeko eta horien inguruan hausnarketa egiteko esperientziak sustatzen al dira, elkarren arteko lotura erakusteko (emozionala, soziala, kulturala, politikoa...)?
- Nola lotzen dira gure ekintzen ondorioak eta erronka global nagusiak (txirotasuna, desberdintasuna, ingurumenaren suntsipena, etab.)?



## 8 METODOLOGIA KRITIKO, ERREFLEXIBO ETA KOLABORATIBOAK

- Hezkuntza-curriculuma eta hezkuntza jarduketa bideratuta al daude, ikasleek beren parte hartzeko gaitasunak, pentsaera kritikoa, empatia, erantzukizuna eta abar garatu ditzaten?
- Errealitate lokalaren eta globalaren arteko loturatik egungo gaien analisisan ikasleek bere iritzia ematea eta horien inguruan ikertzea/hausnarketak egitea sustatzen al da?
- Ikastetxeak hezkuntza aro guztietan parte-hartzea eta lankidetzaren suspertzen duten metodologiekin lan egitea sustatzen al du?

## 9 EZAUGARRIA: ERAGIN ETA EKINTZA ERALDATZAILERAKO JARDUERAK

- Eraldaketarako ikastetxeak parte-hartze sozial eta politikoko jarduerarik burutzen al du? (errealitate sozialen aurrean kokapena, aldarrikapenetan mugimendu sozialetan parte-hartzea, etab.).
- Inguruan aldaketak bultzatze aldera, ikaskuntzak eta ekintzak sustatzeko tresnatzat hartzen al du ikastetxeak eragin politikoa?
- Ikastetxeak eragin eta sentsibilizazio kanpainak planeatzen eta antolatzen al ditu, tokiko elkarteekin, GGKEekin eta abarrekoekin lankidetzan?

## 10 EZAUGARRIA: IKASKETA ETA HOBEKUNTZA DAKARREN EBALUAZIOA

- Hezkuntza-praktiken eta esperientzien ebaluazioan, sistematizazioan edota ikerketan oinarritutako ikaskuntza-kultura ezarri nahi al du ikastetxeak?
- Emaitzen ebaluaziotik haratago, irakasleek prozesuen ebaluazioa ulertzen al dute?
- Ebaluazio era anitzak eta adierazgarriak sustatzen al dira, hots, auto-ebaluazioa, berdinen arteko ebaluazioa, errubrikak, etab.?

## C) IKASTETXEAREN PLANGINTZAREN ETA ANTOLAKETAREN EZAUGARRIEKIN ERLAZIONATUTAKO GALDERAK

### 11 EZAUGARRIA: HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA ERALDATZAILERAREN CURRICULUMA

- Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea Ikastetxeko curriculumean bilduta al dago (baloreei, metodologiei, harremanei dagokienez)?
- Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen eduki zehatzak lantzen al dira (erronka global nagusiak...) modulu/ikasgai ezberdinetan?
- Curriculumean jorratzen diren gaien eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen gaien artean konexiorik ezartzen al da?





## 12 EZAUGARRIA: HGHE DOKUMENTU ESTRATEGIKOETAN AGERI DA

- Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen baloreak, edukiak, helburuak eta proposamenak ikastetxeko estrategia- eta eragiketa-dokumentuetan agertzen al dira (hezkuntza proiektua, estrategia-plangintza, tutoretza-ekintzaren plangintza)?
- Kanporantz ikastetxea aurkezterakoan, bertan Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea funtsezkotzat hartzen dela eta jorratzen dela aipatzen al da?
- Ba al dago Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen arduradun den irakaslerik nahiz zuzendaririk?

## 13 EZAUGARRIA: ANTOLAKUNTZA PARTIZIPATIBOA ETA INTEGRATZAILEA

- Ikasleek parte-hartzen al dute ikastetxeko arauen garapenean, jardueren antolaketan, proiektuen proposamenean eta abarrekoetan?
- Ikasleek, eta oro har hezkuntza komunitateak erabakiak hartzeko prozesuan eta proposamen zehatzetan benetan parte-har dezaten ikastetxeak esparruak eratzten al ditu?
- Ikastetxean barne, familien parte-hartzea sustatzen duen egiturarik eta eremurik al dago? Eta hezkuntza-komunitateko bestelako aktorerik, nahasita al dago?

## 14 EZAUGARRIA: ERNE BOTERE- ETA ARDURA-HARREMANEI

- Ikastetxeak, bere gaitasunen eta baliabideen erabilera hezkuntza-komunitateko kide guztien eskura jartzen al ditu, bereziki pertsona ahulenen eskura edo entzunak izateko aukera gutxien dituzten pertsonen eskura?
- Ikastetxeak kezkarik al du bertako eremuak talde guztien artean berdintasunez erabil eta banatu daitezzen (neskak, mutilak, funtzionaltasun aniztasuneko pertsonak, gutxien zaletasunak, etab.)?
- Kolektibo guztien artean topaguneak eta ahalduntzeko eremuak sustatzen al ditu, batez ere ahulenen artean?

## 15 EZAUGARRIA: INGURUAREKIN LANA, SAREAN

- Ikastetxeak, bere irakasleen eta beste ikastetxetako irakasleen arteko esperientzietan eta ikasketetan parte-hartzea eta trukaketa sustatzen al du?
- Ikastetxeak kolektibo sozialekin, tokiko elkarteekin eta administrazioekin harremanik sustatzen al du, herritartasun globala eraikitzeko proposamenak burutzeko?
- Ikasleek (eta oro har ikastetxeak) ekimen komunitarioetan parte hartzen al dute?

## D) BESTELAKO GALDERAK

Ondoren, galdera batzuk proposatzen dizkizuegu; horiek ikastetxeentzat, irakasleentzat nahiz hezkuntza-komunitatearentzat baliagarriak izan daitezke, Ikastetxe Eraldatzailearen zenbait ezaugarri erdiesteko lanean ari zareten eremuan zein puntutan zaudeten baloratzeko. Aldi berean, ekiteko aztarnatzat har daitezke:



## Prestakuntza

- Hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen etengabeko prestakuntza-plan batean lanean ari al da ikastetxea, edo bertan parte hartzen al du?
- Irakasleei eskaintzen zaien prestakuntzak, ikastetxeak landu nahi duen Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen ikuspuntua biltzen al du?
- Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzaileari buruzko prestakuntza ekintzarik proposatzeko eta horietan parte hartzeko aukerarik al dute irakasleek?
- Guztiongan eragina duten arazoan lotura lokala-globala lantzen duen hezkuntza-komunitateari zuzendutako prestakuntza/sentsibilizazio eremurik al dago (familiak, GE, ikasleak, bestelako agenteak)?
- Irakasleen prestakuntza sustatzen al da, beren irakaskuntza lanarekin zerikusia duten alderdi guztien jarraipen eta ebaluazio integralari buruz (hezkuntza-praktikak, ikasleen eta burutzen dituzten prozesuen jarraipena eta ebaluazioa, etab.)?

## Materialak eta baliabideak

- Irakasleek, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen edukiak eta metodologiak lantzeko, beren beharrei egokitutako materialik eta tresnarik al dute?
- Material/tresna horiek lantzeko/egokitzeko unean, irakasleek parte hartzen al dute?
- Ikasle guztiek aro guztietan HGHE IKTen bidez jorratu ahal izateko, beharrezkoak diren baliabide guztiak al ditu ikastetxeak?
- HGHEekin zerikusirik duten gaiak ikasgelan jorrazeko materialak eta baliabideak al dituzte irakasleek, ikasgai bakoitzari eta ikasleen errealitateari egokituta? Zeintzuk?


## Elkarrizketarako eta koordinaketarako eremuak sortu

- Hezkuntza-ekintzei, gaiei, plangintzari eta abarrekoiei buruz irakasleek baterako hausnarketak egin ditzaten, eremurik eta unerik ahalbidetuz al du ikastetxeak?
- Zuzendariak eta klastroak batera lan egiten al dute ikastetxean Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea sustatzeko?
- Irakasleen eta ikasleen arteko ekintza eta jardueri buruzko eztabaidarik edo koordinaketarik sustatzen al da ikastetxean? Eta hezkuntza-komunitateko bestelakoekin?
- Aro ezberdinetako ikasleen arteko edo beste ikastetxetako ikasleekin baterako lanerako eremurik edo unerik sustatzen al da?



# 31

## EKINTZA-PLANAREN FITXA




Burutzeko epealdia	
Talde gidaria (arduradunak)	
Ibilbidea egiteko Estrategiak / Ekintzak	
Lorpenak	
Nora heldu nahi da	
Abiapuntua	
IEren Ezaugarriak	
Eremuak	



## 4/

# BIDAIAREN EGUNKARIA (JARRAIPENA)



Gauzatutako ekintza (izena)		Argazkiak
Burutzeko tokia		
Data(k)		
Ordu kopurua		
Partaideen profila (irakasleak, ikasleak, gurasoak...)		
Pertsona kopurua osora		
Gizon kopurua		
Emakume kopurua		
Deskribapen laburra		
Zer I Eren ezaugarri dakarkio ekarpena?		
Balorazioa-Ebaluazioa		
Aurreikusitako lorpenen bat erdietsi al dugu?		
Jomugara heltzeko nola laguntzen ari da?		
Zer aldaketak/ ikaskuntzak utzi ditu ikastetxean?, denboran zehar iraungo al dute?		

# 5/ BIZI IZANDAKO ESPERIENZIA SISTEMATIZATZEKO ELEMENTUAK



Ikastetxean bizi izandako esperientzia sistematizatzeko tresna bat proposatzen dizugu; hari esker, erraz, bizi izandako prozesuaren historia kontatu ahaliko duzue. Ez da ebaluazio bat, eskuratutako ikaskuntzen berreskurapena baizik. Sistematizatzean iraganera bidaiatzen ari gara, baina etorkizunerako proiektzioa egiten ari gara ere, honek ikaskuntzen eraikuntza kolektiboa dakarrelako eta ikasitakoa nahiz sentitutakoa berreskuratzen duelako.

Hona hemen sistematizazioaren definizio sinplea: «Bizi, sentitu eta esperimentatu izandakoaren diskurtso kolektibo baten eraketa prozesua, non ikasketek etorkizuneko esperientziak eragiten dituzten».

## HASTEKO, OINARRIZKO HIRU GALDERA EGINGO DITUGU:


- Zertarako burutu nahi dugu sistematizazioa? Galdera honen bidez definituko dugu gure sistematizazioaren helburua; geure kasuan, Ikastetxe Eraldatzailearen bidean aurrera egitea.
- Zer esperientzia sistematizatu nahi dugu? Galdera honi esker ikastetxeko zer hezkuntza esperientziak sistematizatu nahi ditugun, hau da, zer alderdi aztertu nahi ditugun definitu ahaliko dugu, esate baterako: aste solidarioa, gazteekin boluntariora, ikastetxean Actúa con Cuidados kanpaina...
- Esperientziaren zer alderdi interesatzen zaigu gehien? Hau izango litzateke sistematizazioaren ardatza eta, geure kasuan, ikastetxe eraldatzaileen ezaugarriak barneratzean dago, hau da, zer ezaugarri identifika dezaket ikastetxean, edo zer ezaugarrietan aurrera egin nahi dudun ikastetxeko eguneroko jarduketan.

## JARRAITZEKO, KOLEKTIBOKI GEURE ESPERIENZIA AZALTZEN ETA AZTERTZEN DUGU:

Zer sistematizatu nahi dugun, zergatik sistematizatu nahi dugun eta jorratu nahi ditugun alderdiak argi ditugunean, orduan, esperientzia lantzeko bi tresna proposatzen dizkizuegu:

### Denbora lerroa: Bizi izandako historia kontatu

Esperientzian gertatutakoaren berreraikuntza antolatua egitean datza, hau da, gertatu zen bezalaxe, kronologikoki, denboraldi zehatz batean zehar. Honi esker gertakizun nagusien ikuspuntu orokorra izango dugu, eta une adierazgarriak, hautatutako aukera nagusiak, prozesuaren erritmoa zehaztu zuten aldagetak identifikatuko ditugularik, esperientziaren prozesuak jarraitu zituen faseak kokatu ahaliko ditugu.



Prozesuaren berreskurapenaren barne honakoak identifikatu behar daude, modu deskriptiboan eta aurretiko ondorioz edo interpretaziorik egin gabe (noski, sakondu beharreko gaiak edo interpretazio-fasean landuko diren galdera kritikoak idatz daitezke):

- **Uneak:** prozesurako garrantzitsuak diren denbora-uneak eta gertaera erreflexiboak.
- **Testuinguruak:** identifika daitezkeen suspertzaileak eta oztupoak.
- **Erreakzioak, iritziak eta emozioak,** ekintzen garapenean zehar agertutakoak nahiz berriraketa prozesu honetan sortzen direnak.

Historia honek, gainera, hautatutako **esperientziaren honako ezaugarriak** bilduko ditu::

- Zer egin zen? Zer helburuekin? Nola? Zergatik? Noiz? Nork? Norekin? Zein zen abiapuntua? Zein izan da garapena? Zeintzuk ziren itxarobideak? Zein izan zen balorazioa azkenean? Zer egin genuen, eta zer helbururekin? Nola egin zen?
- • Jardueraren antolaketarako definitutako zereginak: Aurretiko koordinaketa, jardueren diseinua, burutzea, edukien egokitzapena, ebaluazioa...
- • Nork hartu du zeregin horien ardura? Zer laguntza jaso zen? Jardueraren barne generoa, adina eta papera bereizi.
- • Partaideen gaiei buruzko aurretiko ezagutza.
- • Parte hartu zuten beste talde eta erakundeekin lankidetzaren harremanak nola eboluzionatu zuen.
- • Jarduera/proiektuan jorratutako edukiak eta horiek nola eboluzionatu zuten. Zergatik horiek aldatzea garrantzitsua izan den, zer sartu den eta zer atera den.
- • Erabilitako metodologia eta erreminten eboluzioa. Zergatik aldaketak egin diren. Zer sartu den eta zer atera den, eta zergatik.
- • Parte hartzen duten pertsonen itxaropenak, interesak, baloreak, ametsak.
- • Jarduera/proiektuan partaideen balorazio kualitatiboa: zer ekarpen egin zien, zer esanahi izan zuen, etab.

Elementu hauek guztiak, historiaren denbora lerroaren alboan idatziko dira (lerro paralelo baten antzera, orri-oinean, beste zutabe batean...); honela, dagozkien une edo gertaerekin identifikatzea erraza izango da, eta aldi berean, prozesuaren berriraketa objektibotik bereiztea erraza izango da. Sintesi grafiko bat egingo dugu, jarduera/proiektuaren bizitzaren ikuspuntu panoramikoa izateko. Prozesua ikuskatzea oso lagungarria da bidea norantz marrazten dugun ulertzeko.

## Geure esperientzia aztertzen dugu

**Interpretazio-faserako** sormenezko galderak erabil ditzakegu, adibidez:

Zer eragin izan zuen Ikastetxearen testuinguruan? Aldaketa nabarmengarririk eragin zuen? Praktikatatik hasita, zer prozesu sortu dira? Zer dilema eta zailtasun eragin dute prozesuaren garapenean, eta nola ebatzi dira? Bizi izandako prozesuak, pertsonalki aldaketarik eragin al dizu?



Galdera hauei erantzunak biltzeko proposamena honako koadroan ikus daiteke:

Geure esperientzia aztertzen dugu				
Lorpena/jarduera	Identifikatutako zailtasunak eta erronkak	Estrategiak	Irauten duten aldaketak	Eragina/aldaketa

Oinarrizko uneak, zailtasunak, horiek nola ebatzi diren, zerk funtzionatu duen eta zer hobetu behar dugun behin argitu dugunean, orduan erdietsitako ondorioak, ikaskuntzak eta prozesuan aurrera jarraitzeko gomendioak zeintzuk diren definitzeko unea da:

**Gure OIGak definituko ditugu:**

### ONDORIOAK

- praktikak
- teorikoak

### IKASKUNTZAK

Gure etorkizuneko jarduketarako ditugun ikaskuntzak

### GOMENDIOAK

Jaduketarako besteei emango genizkiekeen aholkuak


### Elementu guztiak biltzen dituen dokumentua landu, idatzi eta zabaldu

Azkenik, prozesuan zehar eskuratutako ziurtasun, ideia eta hausnarketa guztiak biltzea garrantzitsua da, eta horretarako, bizi izandako guztia azaltzen duen dokumentu bat lantzea gomendatzen dizuegu, non sistematizazioaren funtsezko ondorioak biltzen diren. Ondorio hauek oinarrizko elementuak izango dira ikastetxe eraldatzaileen ezaugarrietan aurrera egiteko.



## 61

## EBALUAZIOA



Guztiok ebaluatzeko joera dugu, batez ere hezkuntzaren eremuan.

Beraz, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen lanean esperientzien ebaluazioari eta ibilitako ibilbideen ebaluazioari ezin diegu utzi. Eremu honetan egiten duguna aztertu behar dugu, prozesua berrikusi, emaitzak neurtu behar ditugu eta ezarritako helburuekin alderatu behar ditugu (erdietsi nahi ditugun helburuekin, burutu nahi ditugun prozesuekin eta proposatutako proiektuekin). Orduan, ebaluazioa eskutan dugularik, esperientzia errepikatu nahi dugun, hura hobetzen dugun edo aldaketa handiak edo txikiak egiten ditugun erabakiko dugu, eta honela, Herritartasun Globalerako Ikastetxe Eraldatzaile bihurtzeko pasoa ematen jarraitu ahalko dugu.

Edozein jarduera ebaluatzeko, nahitaez, harengan eragiten duten faktore guztiak (esperientziaren proposamenaren deskribatuta daudenak) eta erdietsi nahi ditugun behin betiko helburuak kontuan hartu behar ditugu. Garrantzitsua da **erdietspen adierazleak** erabiltzea, ebaluazioa objektiboa izan dadin eta burututako ekintzaren eragina definitzeko baliaigarria izan dadin. Helburua ez da puntuazio jakin bat ematea eta gaitzatea edo ez, baizik eta etorkizunerako proposamenak garatu ahal izatea (hobetu, sartu, kendu, birplantatu...). Garrantzitsua da **hasierako balorazio** / ebaluazioa izatea, hau da, aurretiko oinarria (bestelako eduki, gaitasun eta jarduerekin egiten dugun bezala); hau lagungarria izango da nora heldu nahi dugun definitzeko, eta bertara heltzeko bidea definitzeko.

## 6.1. EBALUAZIOA EGITEKO EMANDAKO PAUSOAK BERRESKURATUKO DITUGU, HORREK BILTZEN BAITITU PROPOSAMENAREN GEURE «TEORIA» OSOA ETA GEURE «PRAKTIKA» OSOA

### Teoría

- 1/ Amets egiten hasiko gara\_\_\_\_\_ Eusten gaituena, baloreak, ideialak, amets egiten dugun mundua...
- 2/ Zer unetan gaude \_\_\_\_\_ Geure testuingurua, geure errealitatea, geure zailtasunak, geure aukerak, geure ingurumenean dauden pertsonak edo erakundeak...
- 3/ Nora heldu nahi dugu\_\_\_\_\_ :
  - Erdietsi nahi ditugun emaitzak
  - Proposatzen dugun egitura, prozesuak, jarduerak,
  - burutuko ditugun ekintzak...

### Praktika

- 4/ Aurrera
- 5/ Nora heldu gara
- 6/ Eta ospatzen dugu



## 6.2. GEURE TEORIA ZER NEURRITAN PRAKTIKAN BETE DEN, HORI DA EBALUAZIOAK ESANGO DIGUNA

Horretarako, **zer ebaluatu nahi dugun** galdetuko diogu geure buruari; gogoratu, garatu dugun praktikak hezkuntza eraldatzailea suspertzen duen edo ez pentsatu behar dugu, eta eraldaketa hori zer faktorek (propioak nahiz testuingurukoak) mugatzen edo indartzen duten. Ebaluatu nahi duguna ikusteko, errazena da gure buruari galderak egitea, eta murgilduta dauden pertsonentzat interesgarriak diren gutxi horiek hartzea (hiruzpalau). **Espero ditugun aldaketei buruz (emaitzak) eta aldaketak erdiesteko garatu diren prozesuei buruz (jarduerak)** geure buruari galdetzea garrantzitsua da; halaber, murgilduta dauden pertsonen galdetu beharko diegu ere, batez ere interesgarritzat jotzen baditugu (ikasleak, irakasleak, familiak, murgildutako antolakundeak edo erakundeak).

Halako galderak izan beharko lukete:

- Herritar global batek izan behar dituen ezaupideak, gaitasunak eta jarrerak ikasleek bereganatu ditzaten laguntzen ari al naiz?
- HGHErekin koherenteak diren metodologia eta praktika egokiak garatzen ari al naiz? Zertan hobetu dezaket?
- Nire inguruan dagoen egiturak, nola laguntzen edo galarazten dit nire praktiken kalitatean sakontzen, eta beraz haren emaitzak? Hobeto erabil ditzakedan gauzak al daude?
- Zer punturaino testuinguruko elementuek (ikastetxeak, testuinguru hurbilekoak, errealitate soziopolitikokoak, etab.) eragiten dute (ondorio baikor edo ezezkorrek) ikasgelan edo ikastetxean jorrotzen duguna? Hezkuntza jardueratik testuinguru horretako alderdiak aldatzeko aukerarik al dago?

Galdera hauei erantzuteko zenbait ideia praktiko hauexek dira::

- Ikasleei galdetu: ikasi edo aldatu dutenaren inguruan protagonistei beren iritzia zein den galdetzea garrantzitsua da. Galdetegien bidez edo kuantitatiboak ez diren beste metodologiaren bidez galdetu ahal diegu, adibidez elkarrizketak, taldeen bilerak, etab. Halaber, galdera zuzenak edo kasuen ebazpenak proposatu dizkiekegu, adibidez.
- Behaketa-fitxak: irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du. Horregatik, ondorioetara heltzeko pertsonen esaten edo erantzuten dutena kontuan hartzeaz gain, beren portaeren eta jarreraren behaketa kontuan hartu beharra dago ere.
- Anekdotak dokumentatu: batzuetan, gertatu den adibide edo egoera bat aldaketaren (edo aldaketarik ezaren) froga hoberena izan daiteke; horregatik, horiek biltzeko tresnak eskaintzen dira ere, gertaera horiek ahaztu ez daitezten.



### 6.3. ERANTZUNEN INGURUAN GOGOETA EGINGO DUGU ETA EBALUAZIOAREN ONDORIOAK LANDUKO DITUGU

Ez gabiltza puntuazio baten bila, ez dugu ikusi nahi praktikak «arrakasta» izan duen edo «porrot» egin duen. Aldiz, garrantzitsuena da galdera horien inguruan hausnarketa egitea, eta erdietsi nahi ditugun aldaketan eta eskuratu ditugun ikaskuntzen aurrerapenak baloratzea, aurrerago geure praktiken kalitatea eta eragina mantentzeko edo handitzeko.

Hezkuntza eraldatzaileak sustatzen dituen aldaketa-prozesuak epe luzekoak dira, eta beraz emaitzak eta aldaketak ezin dira berehala hauteman; gainera, prozesu hori bizkortu edo moteldu dezaketen kanpo faktoreak kontuan hartu behar dira ere. Geure ekintzek aldaketa ekar dezakete, baina beste faktore askok eragina izango dute ere.

Zer lortu dugu?

Noraino heldu gara bilatzen genituen helburu eta aldaketetan?

Zer errepikatu behar dugu, zer hobetu behar dugu, zer elementu berri sartu behar ditugu?



# EPILOGOA:

## Hezkuntza berriztatzailerako proposamena, praktikan oinarrituta

Haurrekin, nerabeekin eta gazteekin Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailean (HGHE) lanean gero eta pertsona gehiago murgilduta dago: hezitzaileak, maisuak, irakasleak, unibertsitateetatik, GGKEetatik, elkartetatik eta ikastetxetatik hezkuntzari loturiko lagunak. Halaber, gizarte mailako proposamenak edo gaitasun sozialeko eta gizabideko programak garatzen ditugu ere.

Dokumentu honetan garatzen dugun proposamena, antolakuntza ezberdinen eta antolakuntza bakoitzeko sareko irakasleen artean elkarrekin egindako lanaren emaitza da. Sare horiek hauexek dira: InteRed-eko Red Transforma, ALBOANeko Red Edukalboan, Entreculturas-eko Red Solidaria de Jóvenes y Docentes, eta Oxfam Intermón-eko Red de Educadores y Educadoras para la Ciudadanía Global. Horiekin, hausnarketarako eta ezaupideen sorrerarako eremuak sustatu dira, irakasleek egunerokotasunean garatutako esperientzien balioa nabarmendu da, eta munduaren eraldaketarako bidean laguntza eta berrikuntzarako gidaren oinarriak ezarri dira.

Sarean egindako lan honek fase ezberdinak izan dituelarik, ikuspuntu ezberdinetatik proposamena aberastu da:

Abiapuntua oinarritzko kontzeptuak adosteko antolakuntzen gaitasuna izan zen, horiek Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzan irakasle eta ikastetxeekin esperientzia zutelako, irakasleen sareko lau ikastetxetan hain zuzen. Beren esperientzietan oinarrituta, jarduera eraldatzaileei buruz beren ondorioetara heldu ziren, eta honela, HGHEren etorkizuneko jarduerak hobetzeko ikaskuntzak sortu ahal izan zituzten.

Bidaia honi ekin genionean, funtsezko bi ideia genituen: murgildutako pertsonen eta erakundeen artean esperientziaren trukaketa sustatzea; eta esperientzien protagonistak ziren pertsonen hausnarketa eta ulermena sustatzea, praktika eta teoria konbinatuta. Behin betiko helburua zen ikaskuntza esanguratsuak sortzea.

Prozesu honen emaitza izan zen, Hezkuntza Eraldatzailea zer den definitzen saiatzen zen behin behineko dokumentua; bertan Hezkuntza Eraldatzailea definitzen duten ezaugarriak zeintzuk diren eta sistematizaziotik eratorritako ondorioetan oinarrituta ikuspegi hau nola ezar dezakegun definitzen da ere. Dokumentu hau behin-behinekoa zen, berau zirriborro egoeran izanik, akordio honen kolektiborik garrantzitsuenak, hots, irakasleek, oraindik ekarpenak egiteko zituztelako.

Gurekin lanean aritu diren sareen parte diren irakasle eta ikastetxeek ekarpen garrantzitsuak egin dituzte:



- Herritartasun Globalean Hezteko bizipenean garatutako prozesuen esperientzien sistematizazioa Espainiako 4 ikastetxe hauetan: Ulia Fidentia de Montemayor Kordoban (InteRed), Colegio San Ignacio Iruñean (ALBOAN), IES Pablo Picasso Malagan (InteRed) eta IES Vicent Andrés Estellés de Burjassot Valentzian (Entreculturas). Sistematizazioaren prozesuarekin hauxe ahalbideratu zen: esperientziaren berreraikitzea eta berreskuratzea, baita hezkuntza komunitate beraren eta, bereziki, irakasleen parte-hartzetik azterketa kritikoa ere; praktikan oinarrituta ikastetxe bakoitzean ezagutzaren sorrera; ikastetxeen arteko trukaketa, ikaskuntza partekatu esanguratsuen erauzketa eta ikaskuntza komunaren eraketa, Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren jardura hobetzeko. Sistematizaziotik erauzitako ondorioek ekarpen handia egin diote dokumentu honetan azaldutako proposamenaren garapenari.
- Sareetako irakasleen ekarpenen eta hausnarketaren bilketa bilera eta topaketa ezberdinetan, bai sareetan berezirik, baita eremu komunetan ere.
- Ikastetxetako Titular Taldea (Pilar Blanco eta Francisco Campos InteRed-eko Red Transforma-etik, Florentino Hortelano, Esther Gutiérrez, Mercè Gil eta Flor López Oxfam Intermón-eko Red de Educadores y Educadoras para la Ciudadanía Global-etik, Eva Rodríguez Salcedo, Clara Salanueva Beldarrain eta Ana Vicente Marqués ALBOANeko Red Edukalboan-etik, Amparo Muñoz Ferriol eta Faustino Díez Entreculturas-eko Red Solidaria de Docentes-etik).

Honez gain, hausnarketarako jardunaldiak burutu ziren, beren esperientziatik, hausnarketetatik eta praktiketatik ekarpenak egin dituzten beste antolakunde, erakunde eta pertsonekin batera, kontzeptuak eta proposamenak argitzen lagundu dutenak. Hezkuntzako eta administrazio publikoko pertsona nabarmen-garriekin, agente sozialekin eta laguntzaileekin ezaupideak eta esperientziak trukatu ditugularik, hauexek dira eremu teoriko-praktiko hau aberastu dutenak: Oscar Jara Holliday (CEAAL-Consejo de Educación Popular de América Latina y el Caribe), Alejandra Boni eta Begoña Arias (Universidad Politécnica de Valencia), Eva M<sup>a</sup> Morales eta Vanesa Sánchez Maldonado (Altekio, Iniciativas para la Sostenibilidad), Miguel Ardanaz Ibáñez (Educación Global Research), Marian Pascual (Nafarroako GGKEen koordinatzailea) Escuelas Solidarias de Navarra-ko arduraduna, Fundación Gonzalo da Silveira eta Fe y Alegría.

Halaber, erakundeetako langile teknikariek irakasleekin batera hausnarketa egin dute, proposamenaren ezarpen praktikoa burutzean ikastetxetan lagundu dute eta behin betiko dokumentua idazten lagundu dute. Hauexek dira: InteRed (Ana, Teresa, Isa, Willy, Justina, Guada, Marta, Julia, ...), Alboan (Mari Tere, Carol, Álvaro, Ani, ...), Entreculturas (Irene, Yeny, Carolina, ...) eta Oxfam Intermón (Anna, Begoña, Eli, Sonia, Carlos, ...)

Amaitzeko, nabarmendu behar dugu lau urte hauetan zehar esperientziak, ideiak, hausnarketak eta utopiak partekatzeko prozesuan jazotako ikaskuntzek eraldaketa prozesuak ekarri dituztela, bai pertsonalki baita kolektiboki ere. Eta prozesu horiek sormenetik eta berriztapenetik aldaketak bideratu dituzte. Nahi dugun hezkuntzari buruz elkarrekin pentsatzen dugunean,aldi berean, nahi dugun mundua eraikitzen ari gara, guztien onerako eta bizitzaren eta planetaren jasangarritasunean oinarritutako etorkizunaren alde.



# BALIABIDE GEHIAGO



## HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZ ERALDATZAILEAREN ALDEKO MUGIMENDUA: [www.educaciontransformadoraglobal.org](http://www.educaciontransformadoraglobal.org)

- Morales, M<sup>a</sup> Eva, Sánchez Maldonado, Vanesa (Altekio, Iniciativas para la Sostenibilidad) (2016): «**Informe Final de acompañamiento al proceso de sistematización de Experiencias de educación transformadora y para la ciudadanía global de Centros Educativos**». Madrid. <http://www.educaciontransformadoraglobal.org/wp-content/uploads/2015/12/Sistematizaci%C3%B3n-Experiencias-Resumen-.pdf>
- Jara Holliday, Oscar (2016): «Dilemas y Desafíos de una Educación para la Transformación. Aproximaciones freirianas». Documento Reflexivo. Movimiento ETCG. <http://www.educaciontransformadoraglobal.org/wp-content/uploads/2015/12/DilemasDesafiosEducacTransform.pdf>

## INTERED: [www.intered.org](http://www.intered.org)

- InteRed (2018): «**Pedagogía de los Cuidados. Aportes para su construcción**». <https://www.intered.org/recursos/la-pedagogia-de-los-cuidados-aportes-para-su-construccion>
- InteRed (2017): «**Jugar para conocer, conocer para transformar**». <http://www.educaciontransformadoraglobal.org/wp-content/uploads/2015/12/libro-ludopedagogia-AECID-copia.pdf>
- InteRed (2013): «**Educación para el Desarrollo y la Ciudadanía Global, EpdCG: Guía para su introducción en los centros educativos**». <http://www.educaciontransformadoraglobal.org/wp-content/uploads/2016/12/educacion-1.pdf>



## ALBOAN:

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

- ALBOAN (2005-2016): «**Munduko Hiritarrok. Interculturalidad. Documento marco. Educación Infantil**». <http://www.educacion.alboan.org/es/materials/379>
- ALBOAN (2005-2016): «**Munduko Hitirarrok. Somos protagonistas de nuestro mundo**». [http://www.educaciontransformadoraglobal.org/wp-content/uploads/2016/12/Doc-base\\_MH\\_Dere\\_ESO\\_2.pdf](http://www.educaciontransformadoraglobal.org/wp-content/uploads/2016/12/Doc-base_MH_Dere_ESO_2.pdf)
- ALBOAN (2012): «**Educación para una Ciudadanía Global. Soñando con los pies en la tierra**». [http://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia\\_educacion/es\\_def/adjuntos/Educaci%C3%B3n%20para%20la%20ciudadan%C3%Ada%20ALBOAN.pdf](http://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia_educacion/es_def/adjuntos/Educaci%C3%B3n%20para%20la%20ciudadan%C3%Ada%20ALBOAN.pdf)

## OXFAM INTERMÓN:

[www.oxfamintermon.org](http://www.oxfamintermon.org)

- Alejandra Boni, Estela López, Oxfam Intermón (2015): «**Herramientas para planificar y evaluar prácticas para una ciudadanía global**». <http://www.kaidara.org/es/Herramientas-para-planificar-y-evaluar-practicas-ecg>
- Oxfam Intermón (2013): «**Centros Educativos Transformadores, Ciudadanía Global y Transformación Social**». [http://www.educacion-transformadoraglobal.org/wp-content/uploads/2016/12/CET\\_ES.pdf](http://www.educacion-transformadoraglobal.org/wp-content/uploads/2016/12/CET_ES.pdf)
- Oxfam Intermón (2013): «**Pistas para cambiar la escuela**». <http://www.kaidara.org/es/Pistas-para-cambiar-la-escuela>

## ENTRECULTURAS:

[www.entreculturas.org](http://www.entreculturas.org)

- Entreculturas (2015): «**Promoviendo el cambio global desde la educación. Colección Aulas que cambian el mundo**». [https://www.redec.es/sites/default/files/promoviendo\\_el\\_cambio\\_global.pdf](https://www.redec.es/sites/default/files/promoviendo_el_cambio_global.pdf)
- Entreculturas (2014): «**Habilidades democráticas: derecho a la educación y a la participación ciudadana**». <https://www.redec.es/es/publicaciones/habilidades-democr-ticas-derecho-la-educaci-n-y-participaci-n-ciudadana>
- Entreculturas (2014): «**Habilidades democráticas: capacidades emocionales y sociales**». <https://www.redec.es/es/publicaciones/habilidades-democr-ticas-capacidades-emocionales-y-sociales>



# OHARRAK

Handwritten notes on a page with horizontal dotted lines.





HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN  
ETA HIRITARTASUN GLOBALAREN  
ALDEKO MUGIMENDUA



[educaciontransformadoraglobal.org](http://educaciontransformadoraglobal.org)